


# Berrigara



Nora egingo  
dugu hanka  
bergararrok?

Uda parteko oporrak prestatzen

# OPEL



**TALLERES OLA**

Olabarren auzoa z/g.  
Tfnoak: 76 33 44 / 45 / 46 / 47.  
BERGARA.

Zerbitzu ofiziala ARRASATEn:  
**TAKOLO AUTOAK, S.L.**  
Araba Etorbidea, 3 (Eskatu edifizioa).  
Tfnoak: 79 05 86

OPEL KONTZESIONARIO OFIZIALAK, HOBEAK





# PREZIO BEREZIAK

**APROBETXA ZAITEZ**

## AUKERARIK ZABALENA









**TXAPEL HAU ZURETZAT EGUZKITAKO BETAURREKOEKIN**



**proba itzazu!**



**egunerokoak**

Erabili eta botatzeko lentilla

**2.400 pta**

Eta gainera, 90 egunerako lentilla erostu, portaka hau zuretzat

**Erabili eta botatzeko lentilla**

**hilabetekoak**



**BAUSCH & LOMB**

Eta 3 hilabeteko "pack"-a erostu taaila hau zuretzat

**EGUZKITAKO BETAURREKOEN KANPAINA**

**MULTIOPTICAS LARRAÑAGA**

BERGARA - ARRASATE - ORDIZIA

**ESKLUSIBAN**



**AIR TITANIUM**

PISURIK GABEKO BETAURREKOAK

Arinak, azalerako kalterik gabekoak. LINDBERG-ek patentaturiko titaniozko betaurrekoak, torloju, errematxe eta soldadura gabekoak.



# BILTOKI

BILTOKIk bere bezero guztiei  
**OPOR ZORIONTSUAK**  
opa dizkie eta, bide batez, jakinarazi nahi die  
**ABUZTUAN OPORRENGATIK ITXITA**  
egongo dela.

Konponketak egiteko zerbitzu ofizialen telefonoak hauek dira:

<b>TB, bideoa eta soinua:</b>	943 20 82 75 - 70 14 98
<b>Elektragailuak:</b>	
Otsein-Candy:	943 19 29 23 - 902 10 01 50
Fagor-Aspes:	943 79 22 34 - 79 89 97
Aeg:	943 46 01 11
Corbero:	943 45 55 64
Zanussi:	943 45 81 06
Miele:	943 21 65 13
Phillips-Whirlpool:	902 23 44 32
Liebherr:	944 45 55 64 - 45 36 04

**DEKORAZIOA-ALTZARIAK**  
San Martin plaza 1.  
Tf. eta faxa: 943 76 43 51

**SUKALDEKO ALTZARIAK**  
San Pedro plaza z/g.  
Tf. eta faxa: 943 76 34 00

**TB, BIDEOA, HI-FI SOINUA**  
Barrenkalea 6.  
Tf. eta faxa: 943 76 25 96





# Lapur txabolak

Juan Martin Elexpuru / Idazlea

Hiru hilabetetik behin-edo atal honetan nire iritzia azaltzeko aukera ematen didate BERRIGARAKOek. Oraingoan, ordea, ez dut iritzirik emango eta espazio hau Osintxuko Hilari Gantxegi zenak, 1985.ean Jaione Isazelai eta Iñaki Etxanizi kontatutakoa azaltzeko erabiliko dut. Transkripzio zuzena da eta, interesgarria iruditu zaidanez, jasota bezalaxe kaleratuko dugu.

“Lapur-txabolak nun dien badakizue? Ba horriek ei zien zortzi mutil. Horretxek hemen lehenengo bandiduak. Zortzi mutilek alkar hartu eta pentsatu ei eben lapurretatik bizi izatia. Zortzi ei zien, hortxe Ormola Ballekoak, Azkoitti partekuak. Orduan nere bisabuelia ta nere amandria ta, sasoikuak. Ni ez artean, ni jaiotzeke.

Polpol-etik Azkoiti aldera dare txabolok; oiñ teillatua jausita, baina bi txabola zien horrek, eta harrezkero horrek izena Lapur-txabolak. Hantxe hasi ei eben bizimodua lapurretatik. Gero ba etxetan sartu, txahala saltzen zanian da bidera erten, eta marka txarrean.

Guretik pasatu ei zien jai eguerdi baten; praka zuri ederrekin, bata baino bestia mutil ederraua, esaten eben gurian; eta etorri ei zien tela saltzen, inok nahi baeban, irlanda saltzen, irlandia esaten jakon tela zurixai. Eta ezetz. Erek etxian eitten ebela goruetia, linua etxian hartzen ebela, eta ez otxela faltarik eitten. Eta gero, itxuria, etxetan atiak eta gauzak ikusi, eta gero gabian atiak jo eta...; orduan arma formalik pez eta... Gomezkorta aldi be dana lapurretia; eta hor eta hemen eta han eta; fetxorixa haundixak ardittan eta, etxetara sartu eta...

Eta Elosuko Bentan orduan be tabernia. Eta ogixa ero gauzia falta zanian Elosuko Bentara joaten ei zien.

*“Lehen hori euan: lapurrak bai lelengo Bergaran ero, urtebete bat ero; ondo gauzak detailatzen zienian Santoñara edo”*


Handik galdu ei zien. Benteruak, itxuria, aguantatu ezinak emunda, herrixan baten bati partia emon.

Orduan mikeletiak. Etorri ei zien zortzi mikelete, edo hamar edo; orduan indar handixa. Mutillok preparatzen ei eren nora-nora erteteko. Bertan hartu sei. Zortzi izen, eta bi kanpuan, bi kanpora ertenda. Bi geratu kanpuan. Gero herrira hartu ei zittuen, eta herrittik Santoñara destinua. Lehen hori euan: lapurrak bai lelengo Bergaran ero, urtebete bat ero; ondo gauzak detailatzen zienian Santoñara edo; fuera, e. Errespetua bai, e; oin gutxitxo hoixe dao, oin bildurrez bizi ga.

Eta gero harek seirak kartzelatik abixatzen otxela benteruai: handik libratzen zienian alkarrekin idiatuta erela eta hamarretakon bat egingo ebela. Haura desafixua.

Beste bixak, kanpuan geratu zienak, ate ondota eta hasi ei zien, baina bik bakarrik ezin, eta ezkutatu ei ziren norabaitera. Haren arrastorik ez eben emoten. Orduantxe ipinitako izena hari: Lapur-txabolak”. **B**

barruan




**Hipolito Poza**

Suhiltzailea

*“Pertsonal faltaren arazoak Gipuzkoako suhiltzaile parke guztioi eragiten digu”*

8.



**Rachael Olabarria**

Futbolaria

*“Donostia Cup txapelketa, duen mailarako, ospetsuegia dela uste dut”*

21.



**Asier Lazkano**

Lazkano oinetakodendakoa

*“Lanerako beharrezko ezaugarrixa? Bezeroak zer nahi daben jakitia ondo dator”*

29.



## orain dela...

### BERGARAN GERTATUA

**1490.** Uztailaren 20an, Errege Katolikoek agindu zuten Bergarako alkatea San Migel egunean aukeratuko zela. Egun berean, baina 1888an, argitaratu zuen Unamunok, La Voz de Guipuzcoa egunkarian, San Martzialeko erromeriaren kronika. Urte hartan bera izan zen San Martzialen.

### EUSKAL HERRIAN GERTATUA

**1502.** Uztailaren 15ean lizunkeriarako etxe bereziak egiteko agindua zabaldu zuten Bilbora Espainiako Errege Katolikoek.  
**1622.** Uztailaren 14an Arantzazuko eliza erre egin zen.  
**1946.** Uztailaren 18an Joseba Elozegi espetxeratu egin zuten ikurrina jartzeagatik.  
**1997.** Uztailaren 12an Miguel Angel Blanco PPko zinegotzia hil zuen ETAK.

### MUNDUAN GERTATUA

**1993.** Uztailaren 12an lurrikara baten ondorioz, 200 lagun hil ziren Hokkaidon (Japon).

## zozketak

### BONO LOTO

**Eguakitza 9**  
 1-11-12-36-40-47 (osag.44/itz.3)  
**Astelehena 12**  
 4-8-11-26-27-33 (osag.36/itz.8)  
**Martitzena 13**  
 11-24-27-30-31-46  
**Eguaztena 14**  
 6-11-13-22-25-29 (osag.42/itz.5)

### PRIMITIVA


**Zapatua 10**  
 21-29-34-37-38-48 (osag.40/itz.2)  
**Domeka 11 Saritzarra**  
 5-9-22-27-34-37 (osag.30/itz.9)

### ONCE

**Eguakitza 9:** 41.445 (068 seriea)  
**Astelehena 12:** 81.784  
**Martitzena 13:** 13.355  
**Eguaztena 14:** 40.376

## Eguraldia

Igeldoko metereologi behatokia



Hodeiak izango dira nagusi zeruan astebukaeran. Hala ere, ostarte zabalak irekiko dira eguerdi inguruan eta arratsaldeko lehen orduetan, batez ere. Zapatua domeka baino hodeitsuagoa izango da. Haizeak iparretik joko du arin.

## Eguzkia

Domeka, uztailak 18



Sortu: 07:02



Gorde: 21:44

## Temperaturak eta euria Bergaran

Luis Mari Agirre

### Ilargiaren aldiak



Ilberri: uztailak 13



Ilgora: uztailak 20



Ilbete: uztailak 28



Ilbehera: abuztuak 4

	max.	min.	euria
	°C	°C	l/m <sup>2</sup>
<b>Eguena 8</b>	28	12	-
<b>Eguakitza 9</b>	29	11	-
<b>Zapatua 10</b>	27	12	-
<b>Domeka 11</b>	28	14	4,5
<b>Astelehena 12</b>	26	17	0,6
<b>Martitzena 13</b>	24	18	3,4
<b>Eguaztena 14</b>	24	16	-

## bertako berbak

Juan Martin Elexpuru

### Astalarrosa / Astalarrosa

Bide bazterretan, sasi arte eta abarretan berez hazten den basoko larrosa. Zurixkak edo arrosak izaten dira gehienak. Zizare nagusia edo tenia botatzeko balio duela uste da.



JOSU OKINA

## hamaika ikusteko jaio ginen!

### Minipistola

Hau ez da txantxetako kontua. Aireportuetako poliziaren kontrolatan oharkabean pasatu daitekeen poltsiko-arma asmatu dute. Pistola txiki honen luzeera 75 mm.koa da, eta, beraz, giltzatak bat dela ere pentsa lezake ezjakinak. 8 mm.ko balak tiro egiteko balio du. Dagoeneko salgai da Sofian (Bulgaria) eta 5.000 pezeta baino gehixeagoren truke eskuratu daiteke.

## Farmaziak

### Eguakitza 16:

ESTELLA. Matxiategi 5. Tf. 943 76 19 63

### Zapatua 17:

MOZOS. San Pedro 4. Tf. 943 76 12 15.

### Domeka 18:

MOZOS. San Pedro 4. Tf. 943 76 12 15.

### Astelehena 19:

ESTELLA. Matxiategi 5. Tf. 943 76 19 63.

### Martitzena 20:

GUALLAR. San Antonio 5. Tf. 943 76 11 05

### Eguaztena 21:

MOZOS. San Pedro 4. Tf. 943 76 12 15.

### Eguena 22:

GUALLAR. San Antonio 5. Tf. 943 76 11 05

## Ogia

**Domeka 18:** Konde.

## Telefonoak

### OSASUNA / LARRIALDIK

SOS deiak	112
DYA	943 78 71 57
Gurutze Gorria	943 76 55 76
Larrialdiak	943 46 11 11
Anbulatorioa (txanda)	943 76 24 40
Anbulantzia	943 55 49 63
Udaltzaingoa	943 77 91 03
Ertzaintza	943 76 53 40
Suhiltzaileak	943 78 28 00
Osasun Etxea	943 76 24 40
Arrasateko ospitala	943 03 53 00
Asepeyo	943 76 16 43
Pakea	943 76 13 48
Angiozarko medikua	943 78 90 27
Antzuolako medikua	943 76 62 23

### GARRAIOAK

Euskotren	943 45 01 31
PESA	902 10 12 10
Taxiak	943 76 19 50
RENFE	943 28 35 99

### UDALA

Udaletxea	943 77 91 00
Udal Artxiboa	943 77 91 32
Igerilekuak	943 76 20 51
Kultur Etxea	943 77 91 58
Liburutegia	943 77 91 62
Mizpirualde Egoitza	943 76 13 68

### BESTELAKOAK

Epaitegia	943 76 14 92
Erregistroa	943 76 13 15
Jardun	943 76 36 61
Jubilatuen Etxea	943 76 21 40
Postetxea	943 76 26 65



# zorion agurrak



**Iñaki Kortabarria**  
Uztailaren 20an  
2 urte.  
Urte askotarako!  
Familiakoak.



**Maite Santacruz**  
Uztailaren 16an  
11 urte.  
Urte askotarako!  
Familiakoak.



**Eneko Larrañaga**  
26an urtebete. Urte askotarako!  
Etxekoak, Mari Karmen eta Andres.



**Pablo Hernando**  
Uztailaren 18an  
28 urte.  
Urte askotarako!  
Familiakoak.



**Nekane Varela**  
Uztailaren 21ean  
8 urte. Urte askotarako!  
Argiñe ahizpa eta gurasoak.



**Jon Garcia**  
Uztailaren 17an  
8 urte.  
Urte askotarako!  
Etxekoak.



**Maddi Garcia**  
Uztailaren 19an  
2 urte.  
Urte askotarako!  
Etxekoak.



**Aritz Rodrigo**  
Uztailaren 18an  
2 urte.  
Urte askotarako!  
Iraia eta etxeokak.



**Sara Peñin**  
Uztailaren 25ean  
urtebete.  
Urte askotarako!  
Aita eta ama.



**Gonzalo Ena**  
Uztailaren 15ean  
7 urte.  
Urte askotarako!  
Familiakoak.



**Mikel Salegi**  
Uztailaren 19an  
13 urte.  
Urte askotarako!  
Gurasoak eta anaia.




**Nerea Marzo**  
Uztailaren 17an  
8 urte.  
Urte askotarako!  
Gurasoak eta Jon.

**URTEURRENA**

## Vicenta Larrañaga Uribeetxeberria

Lehen urteurreneko meza  
domekan, uztailak 18,  
goizeko 09:30etan, San Pedron.



*Elizkizunetara joango zaretenoi,  
alde zurretik eskerrik asko sendikoen izenean.*

*Irailaren 3an  
kaleratuko den alean,  
urteak*

**ABUZTUAN** zehar  
*bete dituztenen,  
eta IRAILEAN hilaren 9ra  
bitartean  
betetzen dituztenen  
zorion agurrak  
argitaratuko dira.*



**Eneko Martinez**  
Uztailaren 31n  
11 urte. Urte askotarako!  
Gurasoak eta Ainhoa.



**Yohana Gonzalez**  
Uztailaren 27an  
urtebetezeta.  
Urte askotarako!  
Ni neu.



**Ion Urbieto**  
Uztailaren 23an  
7 urte.  
Urte askotarako!  
Etxekoak.



**Sherezade Moreno**  
23an 16 urte. Urte askotarako!  
Yasmina, gurasoak eta Aitor.



**Ion Montiel**  
Uztailaren 26an  
6 urte.  
Urte askotarako!  
Etxekoak.



**Nora Txintxurreta**  
Uztailaren 22an  
5 urte.  
Urte askotarako!  
Etxekoak.

## hildakoak

### BERGARA

#### Enrique Lete Aldazabal

Uztailak 10, 76 urte

## jaiotakoak

### BERGARA

#### Gorka Marquez Zumelaga

Uztailak 5

#### Julen Vallejo Martin

Uztailak 6

## mezak

#### Santa Marina

Domekak: 13:00.  
Zapatuak: 20:00.  
Lanegunak: 19:30.

#### San Pedro

Domekak: 09:30.  
Zapatuak eta lanegunak: 19:00.

#### Osintxu

Domekak: 11:30.

#### Elosu

Domekak: 13:00.

#### Ubera

Domekak: 10:30.

#### San Juan

Domekak: 11:00.

#### San Prudentzio

Domekak: 10:30.

#### Labegariaeta

Zapatuak: 19:00.

#### San Lorentzo

Zapatuak: 19:00.

#### Angiozar

Domekak: 11:00.

## URTE-MEZAK

#### Santa Marina

Hileko 2. astean, domekan 13:00etan.

#### San Pedro

Hileko 3. astean, zapatuan 19:00etan.

## PESA autobusak

**Bergara-Antzuola.** Lanegunak: 08:00, 09:00, 11:00, 14:00, 15:00, 17:05, 18:00, 20:30.  
Zapatuak: 08:00, 09:00, 14:00, 18:00, 20:30.  
Domeka eta jaieg.: 09:30, 10:00, 18:00, 18:30.

### Antzuola-Bergara.

Lanegunak: 08:30, 12:05, 18:00, 19:35.  
Zapatuak: 08:30, 12:05, 18:00, 19:35, 20:40.  
Domeka eta jaieg.: 10:00, 18:00, 18:35, 22:05.

**Bergara-Arrasate-Eskoriatza.** Lanegunak: 07:15\*, 07:25, 08:35, 09:35, 10:35, 11:35, 12:35, 13:35, 14:30\*, 14:35, 15:35, 16:35, 17:35, 18:35, 19:35, 21:05\*, 21:35\*. Zapatuak: 07:15\*, 09:35, 11:35, 13:35, 14:30\*, 15:35, 16:35, 17:35, 18:35, 19:35, 21:05\*, 21:35\*. Domeka eta jaiegunak: 09:15\*, 11:15, 14:30\*, 14:35, 16:35, 18:35, 19:15\*, 21:05\*, 21:35\* (\*\*Arrasateraino).

### Bergara-Gasteiz.

Lanegunak: 06:45, 08:15, 09:15, 11:15, 14:15, 15:15, 19:00, 19:15, 21:15. Zapatuak: 07:15, 08:15, 09:15, 11:15, 14:15, 15:15, 19:00, 19:15, 21:15. Domeka eta jaiegunak: 09:15, 11:15, 14:15, 15:15, 17:15, 19:00, 19:15, 21:15.

**Gasteiz-Bergara.** Lanegunak: 06:30, 07:30, 08:30, 09:30, 10:30, 11:30, 13:30, 12:30, 14:30, 15:30, 16:30, 17:30, 18:30, 19:30, 20:30.  
Zapatuak: 06:30 (Arrasateraino), 07:30, 08:30, 12:30, 16:30, 18:30, 19:30, 20:30. Domeka eta jai egunak: 08:30, 09:00, 10:30, 12:30, 16:30, 18:30, 19:30, 20:30.

**Arrasate-Bergara.** Lanegunak: 06:05, 06:30, 07:05, 07:20, 08:05, 08:20, 09:05, 09:20, 10:05, 11:05, 12:05, 13:05, 13:20, 14:05, 14:20, 15:05, 16:05, 17:05, 17:20, 18:05, 19:05, 19:20, 20:20, 21:20. Zapatuak: 07:20, 08:05, 08:20, 09:20, 10:05, 12:05, 13:20, 14:05, 14:20, 15:05, 16:05, 17:05, 17:20, 18:05, 19:05, 20:05, 20:20, 21:20. Domeka eta jaiegunak: 09:20, 09:50, 11:20, 13:05, 13:20, 15:05, 17:05, 17:20, 19:05, 19:20, 20:05, 20:20, 21:20.

### Bergara-Oñati.

Lanegunak: 07:35, 09:35, 13:35, 16:35, 18:35, 19:35, 20:45. Zapatuak: 20:45. Domeka eta jaiegunak: ez dago zerbitzurik.

**Oñati-Bergara.** Lanegunak: 07:10, 08:00, 13:10, 13:55, 16:15, 17:10, 19:10. Zapatu, domeka eta jai egunak: ez dago zerbitzurik.

**Bergara-Eibar.** Lanegunak: 06:05, 07:20, 08:20, 09:20, 10:20, 11:20, 12:15, 12:20, 13:20, 14:20, 15:20, 16:20, 17:20, 18:20, 19:20, 19:45, 20:20. Zapatuak: 08:20, 10:20, 12:15, 12:20, 14:20, 15:20, 16:20, 17:20, 18:20, 19:20, 19:45, 20:20. Domeka eta jaiegunak: 13:40, 15:20, 17:20, 18:45, 19:20, 20:20, 22:15.

### Eibar-Bergara.

Lanegunak: 06:50, 07:00, 07:30, 08:00, 09:00, 10:00, 11:00, 12:00, 13:00, 14:00, 15:00, 16:00, 17:00, 18:00, 19:00, 20:30, 21:00. Zapatuak: 09:00, 11:00, 13:00, 15:00, 16:00, 17:00, 18:00, 19:00, 20:30, 21:00. Domeka eta jaiegunak: 14:00, 16:00, 18:00, 20:30, 21:00.

### Bergara-Donostia (Autopistatik).

Lanegunak: 06:45, 08:35, 13:35, 14:35, 19:35. Zapatuak: 07:35, 08:35, 13:35, 14:35, 19:35. Domeka eta jaiegunak: 10:05, 19:35.

### Bergara-Donostia (Tolosatik).

Lanegunetan: 09:00, 18:00. Zapatuak: 09:00, 18:00. Domeka eta jaiegunak: 10:00, 18:00.

### Donostia-Bergara (Autopistatik).

Lanegunak: 08:15, 12:30, 15:00, 18:00, 19:30, 20:45. Zapatuak: 08:15, 12:30, 18:00, 19:30, 20:45. Domeka eta jaiegunak: 18:00, 20:45.

### Donostia-Bergara (Tolosatik).

Lanegunak: 07:00, 16:30. Zapatuak: 07:00, 16:30. Domeka eta jaiegunak: 08:30, 19:00.

### Bergara-Bilbo.

Lanegunak: 07:15, 08:40, 13:45 (Elgetaraino), 14:30, 18:10. Zapatuak: 07:15, 08:40, 14:30, 18:10. Domeka eta jaiegunak: 10:10, 14:30, 18:10, 19:15.

**Bilbo-Bergara.** Lanegunak eta zapatuak: 08:00, 12:30, 17:00, 20:00. Domeka eta jaiegunak: 09:00, 12:30, 19:30, 21:00.

**Bergara-Iruña.** Lanegunak eta zapatuak: 08:00, 14:00. Domeka eta jaieg.: 09:30, 18:30.

**Iruña-Bergara.** Lanegunak eta zapatuak: 10:30, 18:00. Domeka eta jaieg.: 17:00, 20:30.



## ANTZERKIA

► Macrea Clarken **"Stand up comedy"** eta Juanlu Escuderoen **"Trainspotting"** domekan 22:00etan Soralezeko Gaztelupen.

## MUSIKA

► **Luke Slater** eta **Ben Sims** techno DJak bihar, zapatua, 23:00etan Jam aretoan.

► **Jazz emanaldia** datorren ostegunean, hilak 22, 22:30etan Irla kalean.

► **Bergarako Orkestra Sinfonikoak "Titanic"** lana eskainiko du uztailaren 23an, 23:00etan Mutrikuko parrokiaren Hurrengo egunean, hilak 24, **Orkestak kontzertua** emango du 23:00etan Espoioan.

## ERAKUSKETAK

► **Jesus Mari Lazkanoren** margoak Bilboko Rekalde aretoan.

► **Herriko artisten erakusketarekin Beart** arte elkartearen lokala inauguratuko da gaur, eguakitza, 19:00etan Bolun.

## IKASTAROAK

► **Udako Euskal Unibertsitate**, Iruñean uztailaren 19tik 30era. Udalak ikastaroen ma-

## ERAKUSKETA


### Joxan Bilbaoren margoak

#### Nahikari tabernan hilaren bukaerara arte

Joxan Bilbao Manzisidorren (Bergara, 1951) erakusketa ikusgai dago egunotan Nahikari tabernan. Bere jaioterrian "Bilbo" k egiten duen lehenengo bakarkako erakusketa da honako hau. Duela 16 bat urtetik bizi da Donostian eta han ere eutsi egin dio txikitatik duen margotzeko afizioari. Nahikariko erakusketan azken 20 urteotan egindako lanen aukeraketa bat aurkezten digu "Bilbo" k. Bere hitzetan, "zaharrenak 1980ko hamarkadaren hasierakoak dira. Garai hartan, ikaste prozesuan murgilduta, beste margolarien lanak kopitatzten nituen. Poliki-poliki neure gauzak lantzen hasi nintzen, eta errealismoa eta abstraktoa jorratu ditut orduetik. Ez nuke esango estilo guztiz definitua dudanik; estilo batekin aspertutakoan beste batera salto egiten dut;

ez zait gustatzen linea zehatz bat jarraitzea. Azken koadroetan, adibidez, konposizioak egin ditut: paisaia baten barruan giza irudiak tartekatuta ditut eta koadro berean plano diferenteak aurkeztu".

Guztira, 15 koadro dira Nahikarin ikusgai daudenak: "Txo mutiko", "Fujiyamaren alaba", "Basamortuko jabeak", "Tejano bat Manhattanen" edota "Zure bila". Gustoko dituen margolarien artean Aurelio Arteta euskalduna eta Salvador Dali aipatu dizkigu "Bilbo" k. Urte guztian margotzen du, eta aspalditik zuen bere lana Bergaran ezagutzera emateko gogoan. Gehienbat Donostialdean egin ditu erakusketak azkenaldian eta tabernak leku aproposak iruditzen zaizkio artea jendeari gerturatzeko orduan.



Joxan Bilbaok Nahikarin erakusgai dituen koadroetako bi.

trikula ordaintzeko laguntzak ematen ditu. 943 77 91 66.

► **Bideo ikastaroa** irailaren 20tik azaroaren 4ra bitartean, astelehen, astearte eta ostegunetan, 17:00etatik 20:00etara. Matrikula: 16.000 pezeta. Plaza mugatuak. 943 77 91 58.

## DEIAK

► **Mendi irteera Mena-Cabriora** domekan, hilak 18, Alpino Gorlak eta Pol-Polek antolatuta. Irteera 7:00etan Frontoitik. Bergarako afizionatu guztiek izango dute parte har-

tzeko aukera. Izen-ematea Pol-Poleko bulegoan: 943 76 48 51.

► **Jardun elkarteak** datorren ikasturtean astebukaeretan begirale lanak egiteko lan poltsa sortu nahi du. Begirale ikastaroa ere antolatuko da. Argibideak: 943 76 08 19.

ZUBI-BERRI



JATETXEA

San Anton auzoa

**Zubi-Berri jatetxeak barkamena eskatu nahi lieke**  
San Martzial eguneko ospakizunetan, uztailaren 4an, bazkaria eskatu eta berandu jaso edo jaso ez zutenei.

Gertatutakoa kontuan hartuta, datorren urterako beharrezko neurriak hartu eta eskakizun denei garaiz eta modu egokian erantzuteko erantzukizuna hartzen dugu.

Zubi-Berriko arduradunak.



► **Arantzazuko Santutegira peregrinazioa eta Loiolako Santutegira bisita** uztailaren 25ean. Autobusa Bergaratik goizeko 9:30etan irtengo da eta 14:00etan bazkaria izango da Hospederian (1.900 pezeta). Izen-ematea Agirrebeña (San Antonio), Garitano (Zubiaurre), Gube drogeria (Matxiategi) eta Zatoia (Barrenkale) komertzioetan.

► **Abiadura Handiko Trenaren aurkako akapada** uztailaren 16tik 25era Uhartar-Arakilen, AHTaren aurkako asanbladak deituta: mendi ibilaldiak, hitzaldiak, musika, zinea, tailerrak eta bestelako ekitaldiak. Argibideak: 629 89 12 56.

► **Odol ateraldiak** uztailaren 28an eta abuztuaren 11n, 18:30etan Seminarioan.

## JAIK

► **Santa Marinako jaiak.** Bihar, zapatua, **erregulatutako martxa jubilatuentzat** 10:00etan, jubenil mailako **Santa Marina VIII. Ziklismo Saria** 16:00etan (proba 18:30ak aldera amaituko da Matxiategiko helmugan) eta **boccia txapelketa** 19:00etan Matxiategin bertan. Domekan, **plater tiraketa** 10:00etan Iru-bide elkartearen, Gorlan, 10:30etan **Bandaren kalejira**, 12:00etan **kontzertua** Fraiskozurin, Meza Nagusia 12:30etan eta **Aritzeta** abesbatzaren saioa jarraian.

► **Basalgo auzoko jaiak** uztailaren 24tik 26ra. Datorren zapatuan, hilak 24, 9:00etan jaien hasiera, **kanpai hotsak, etxaflero jaurtiketa eta ohizko txopo jasotzearekin. Plater tiraketa** 12:00etan eta 16:00etan eta 21:30etan **bertso afaria** Mañukorta eta Zeberio bertsolariekin eta Gesalaga soinu-joleekin (izen-ematea uztailaren 23ra arte zabalik Txuringo, Iraho eta Mekolalde tabernetan). Domekan, hilak 25, 11:00etan **Meza Nagusia**, 12etan **txirrindulari igoera** Basalgora (alebina eta gaztetxoak) eta 12:30etan **Goenatxo II.a harrijasotzailearen saioa**. Arratsaldean, 17:00etan **dantza txapelketa** eta 18:30etan **pilota partiduak**. Gauean, Xafre eta Zaharra trikitilariekin **erromeria**. Uztailaren 26an, **Meza Nagusia** 12:30etan eta ondoren **luntxa eta umeentzako jolasak**.

► **Santixao jaiak Goimendi auzoan.** Uztailaren 24an jaien hasiera eta **berakazopak** auzoko plazan, 21:30etan. Ondoren Mallabiko soinu-joleekin **erromeria**. Uztailaren 25ean, goizeko 11etan **meza**, 12etan **Salbidea** anaieren (tronzian Euskal Herriko txapeldu-nak) saioa eta 13:00ean Gorrotxategi eta Sorozabal **bertsolaria**. Ondoren **musika** Elorza anaiekin. Arratsaldean, 17:30etan **dantza saioa** eta 18:15etan Gorrotxategi eta Sorozabal **bertsolaria**. Jarraian **bolo txapelketa** eta **erromeria** Elorza anaiekin.

## Z I N E A

### KARTELDEGIA

#### BERGARA. Novedades Payback

Eguakitza: 22:30.  
Zapatua: 22:30.  
Domeka: 17:00, 19:30, 22:15.  
Astelehena, ikuslearen eguna: 19:30.

#### ARRASATE. Alai zinema

**American History X**  
Eguakitza: 22:00.  
Zapatua: 17:00, 19:30, 22:00.

#### Flores de otro mundo

Domeka: 17:00, 19:30, 22:00.  
Astelehena: 19:00, 21:30.  
Martitzena, ik. eguna: 19:00, 21:30.

#### ARRASATE. Monterron

**Muertos de risa**  
Eguena, aire zabaleko zinea: 21:30.

#### EIBAR. Unzaga

**Nunca me han besado**  
Eguakitza: 22:15.  
Zapatua: 17:00, 19:30, 22:15.  
Domeka: 17:00, 19:30, 22:15.  
Astelehena: 19:30, 22:15.  
Martitzena: 19:30, 22:15.  
Eguaztena, ik. eguna: 19:30, 22:15.

#### EIBAR. Rialto

**Matrix**  
Eguakitza: 22:15.  
Zapatua: 17:00, 19:30, 22:15.  
Domeka: 17:00, 19:30, 22:15.  
Astelehena: 19:30, 22:15.  
Martitzena, ik. eguna: 19:30, 22:15.

#### ELORRIO. Arriola

#### La trampa

Zapatua: 22:30.  
Domeka: 20:00.  
Astelehena: 20:00.

#### AZKOITIA. Bazartxo

#### La sombra del faraon


Eguakitza: 22:00.  
Zapatua: 22:00.  
**Nido de cuervos**  
Domeka: 17:15, 19:30, 22:00.  
Astelehena: 20:00.

#### OÑATI. Santana

**Solas**  
Zapatua: 22:30.  
Domeka: 19:30, 22:30.  
Astelehena: 19:30.

### PAYBACK

**Zuzendaria:** Brian Helgeland.  
**Aktoreak:** Mel Gibson, Gregg Henry, Maria Bello, David Paymer. *Val* eta *Porter* izeneko lapurrek uste baino errazago gertatu zaien lapurreta egin berri dute. Baina arazoak behehala etorriko dira, *Valek* jasotako diru guztia eskuratu nahi duelako. Horretarako, bere laguna paretik kentzea izango da irtenbiderik onena. Hasieran lortu duela ematen du, baina *Porter* dirua eta ematea kendu dizkion laguna mendekatzeko gogoz itzuliko da. Lan horretan *Rosieren* laguntza ezinbestekoa izango zaio.



### MUERTOS DE RISA

**Zuzendaria:** Alex De la Iglesia.  
**Aktoreak:** El Gran Wyoming, Santiago Segura.  
Alex De la Iglesia zuzendari bilbotarrak (*El dia de la bestia*) egindako azken filmea urteko arrakastatsuenetakoa izan da. *Nino* eta *Bruno* umorista bikotea herrietako disko-teketan hasi eta telebistan izugarrizko arrakasta izatera iritsi da. Baina bien artean inbidiak eta zeloak piztuko dira... Uztailaren 28rako *El gran Lebowski* iragarrita dago Montorronen.

BERRIGARAK ez du gerta litezkeen emanaldi aldaketen erantzukizunik.

DEBA  
GARAIA

INMUEBLE ETA FINANZA  
AGENTZIA

Bergara / Arrasate / Elgoibar  
Telefono Aranzadi 2 behea  
943 76 21 80 / 943 76 06 37

A  
R  
R  
A  
N  
O



Taberna

Kruz Gallastegi BERGARA



ANTIA

HARATEGIA URDAITEGIA

Txahal, idi, txerri, bildots,  
untxi eta baserriko oilaskoak.

Matxiategi 8 ☎ 943 76 15 09



**Joan zen astean Eibar, Ordizia, Zarautz eta Tolosako suhiltzaileen protesta ekitaldiak izan ziren. Pertsonal falta dela eta, suhiltzaileak eta Diputazioaren arteko polemika piztu da. Hipolito Poza bergararra Zubillagako Suhiltzaileen Parkeko sargentoa dugu eta arazo honen gainean duen iritzia jaso nahi izan dugu.**

**G.** Pertsonal faltaren arazoak Eibar, Ordizia, Zarautz eta Tolosako suhiltzaileei eragiten die bakarrik? Zein da Zubillagako egoera?

**E.** Berez, eragin, Gipuzkoako parke guztioi eragiten digu neurri batean edo bestean, baina zera gertatzen da: Ordizia, Zarautz eta Tolosako parkeak zabaldu zirenean, txanda bakoitze-ko bi pertsonarekin hasi zirela lanean eta Eibarren ere beste horrenbeste gertatu zen joan zen urtean, parkea inauguratu zenean. Suhiltzaileok txanda bakoitzean, gutxienez, hiru suhiltzaile egotea eskatzen dugu, bi lagun nahikoa ez direlako. Gure protokoloan jasotzen denez, herri barruko sute batera, gutxienez, hiru lagun joan behar dira eta bilagailuaren bitartez hirugarrena aurkitu arte ez da kamioia ateratzen. Eta horrek atzerapena dakar. Eibarren duela pare bat aste izandako sute batean protestak izan ziren suhiltzaileak berandu heltzeagatik eta pertsonal faltaren polemika piztu da berriz. Guk zera aldarrikatzen dugu: txanda bakoitzean kabu bat (aginte arazorik egon ez dadin) eta gutxienez hiru lagun egotea. Baina Diputazioa ez dago horren alde eta kontratazio politika zorrotza dauka: goian aipatutako parkeetan hiru kabu, sarjentu bat eta

**HIPOLITO POZA**  
Suhiltzailea

*“Pertsonal faltak Gipuzkoako suhiltzaile parke denei eragiten die”*



Hipolito Poza Zubillagako sargentoa da 1986az geroztik.

ARTXIBOA

honen laguntzaile bat kontratatu ditu eta jende-kopuru horrekin txanda bakoitzean gutxienez hiru lagun egoteko asmoa du.

Zubillagan, lau lagunez osatutako sei talde gara momentuan lanean eta bakoitzean kabu bat dago. Beraz, egoera onean gaude lehen aipatutako beste suhiltzaile parkeen aldean.

*“Zubillagan lau lagunez osatutako sei talde ari gara lanean, eta bakoitzean kabu bat dago. Beraz, nahiko egoera onean gaude”*

**G.** Diputazioak suhiltzaileei leporatzen dizue plantila ez betetzearen errua: kabu izateko mailaz igotzeko orduan zuen aldeetik erresistentzia dagoela dio eta horrek lanpostu gehiago lehiaketara irtetea eragozten duela.

**E.** Hori ez da guztiz egia, gezurra dela ez esatearren. Parke bakoitzean sei kabu egotea onartu ez denez, protesta gisa, sindikatuek plaza horietara ez aurkeztea bultzatu zuten. Hainbat suhiltzaile aurkeztu izan dira lehiaketara, baina eskaintako lanpostu kopurua baino gutxiago (14 kabu lanpostu atera ziren lehiaketara eta 10 lagun aurkeztu dira). Horrek ez du esan nahi mailaz igotzeko borondatearik ez dugunik. Baina lehenengo zerbitzu on bat eskaintzea eskatzen dugu.


**G.** Pertsonal falta da hori lortzeko oztopo bakarra?

**E.** Bai, ekipamendu aldeetik lehen mailako materiala daukagu, baina jendea falta bada, ezin da gauza handirik egin. Larrialdi batean bi lagun irtetea gutxi iruditzen zaigu, eta hiru joatea ere arriskutsua da. Bizitza jokoan jartzen duzu holakoetan, eta hori ez da bidezkoa. Bestalde, Diputazioak martxan jarritako boluntario sistema ez da oso eraginkorra eta gurearen moduko zerbitzu profesional bat ezin da boluntarioen mende egon. Diputazioak egoera horri konponbidea aurkitu beharko dio.





**G.** Udan gaudenez, zein da Deba bailarako egoera sute arriskuari dagokionez?

**E.** Gure kasuan uda parkea ez da garairik arriskuatsuena. Uda amaitutakoan arrisku handiagoa egoten da: mendiak udan lehortuz gero, eta hego haizea dabilenean, orduan izaten da arriskua. **B**





**ANTZUOLAN. HERRI BARRUAN**  
 8 ETXEBITZA ADOSATU,  
 LORATEGIAREKIN  
**LASTER ERAIKIKO DIRA**



**INFORMAZIOA ETA ERRESERBAK:**  
**LANDATXO S.A. 943 76 90 00**



# Ziklomotore guztiak matrikulatu beharko dira 2000. urtetik aurrera

## Udaltzaingoak araudi berriari buruzko kanpaina egingo du

**Datorren urtetik aurrera ziklomotore guztiak matrikulatu beharko direla eta, Bergarako Udaltzaingoak kanpaina bat jarriko du abian datorren astean era honetako motor txikien jabeek araudia ezagutu dezaten.**

Trafiko Zuzendaritzak 2000. urteko urtarrilaren 26an jarriko du indarrean araudia, eta, hori dela eta, uztailaren 26tik urte bukarrera arte araudia herritarrei jakinarazten saiatuko dira Bergarako udaltzainak. Orain arte, 49 zentimetro kubikoko motorren araudia ezberdina izan da herri bakoitzean. Udalen ardura izan da era honetako motorrak kontrolatzea, baina datorren urtetik aurrera Trafiko Zuzendaritzak arautuko ditu ziklomotoreak, zilindrada handiagoko motorrak eta beste ibilgailuak bezala.

Aurrerantzean, ziklomotore guztiak matrikulatu beharko dira eta, beraz, araudia indarrean jartzen denarako, datorren urteko urtarrilaren 26a, era honetako motor guztiak matrikula



Datorren urtetik aurrera, motor guztiak, baita 49 cc-ko zilindradakoak ere, eroan beharko dute matrikula.

eroan beharko dute. Matrikula egiteko, Gipuzkoako Trafiko Buruzagitzan eskiera egin beharko da. Horretaz gain, tasen ordainketa, nortasun agiria, ziklomotorearen ezaugarrien ziurtagiria eta ibilgailuen gaineko zergaren ordainagiria edo salbuespenaren agiria aurkeztu beharko dira.

### GIDATZEKO BAIMENA BEHARREZKOA

Bestalde, ziklomotoreak gidatzeko baimena atera beharko dute autoa edo beste ibilgailuren bat gidatzeko karneta ez dutenek. Orain arte ez zen beharrezkoa gidatzeko baimena izatea 49 cc-ko motorretan ibiltzeko. Datorren urtetik aurrera,

bai. Esaterako, 18 urtetik beherakoek edo gidatzeko karneta ez duen edozeinek azterketa teorikoa gainditu beharko du ziklomotoreak gidatzeko baimena lortzeko. Baimen barik ezin izango da era honetako motor txikiak gidatu.

Bergaran uztailaren 26an hasiko duten kanpa-



BOKATEGIA

Simon Arrieta plaza 2A behea ezkerra.  
Tf. 943 76 71 19



Oihal batek aldatzen du dena

BERGARA

Kruz Gallastegi 3,

☎ 943 76 07 37



naren bitartez, motorretan dabilzan guztiei araudi berriari buruzko azalpenak emango zaizkie udaltzainek banatuko dituzten foiletoen bitartez. Ziklomotoeren gida lizentzia lortzeko betekizunak hauek dira: 14 urte beteta izatea, gaitasun psikofisikoen ziurtagiria (osausun ziurtagiria) edukitzea eta azterketa teorikoa ala autoeskolan edo ikastetxean egindako ordezkiko ikastaroa gaiditzea.

### KASKOA BEHARREZKOA

Esan behar da, bestalde, ziklomotore batean bi lagun

joateko ibilgailua bi plazatarako homologatuta egon beharko dela, eta motorrean doazen biek babes kasiko homologatua beti jantzita eroan beharko dutela.

Horrez gain, ziklomotore guztiek eroan beharko dituzte Trafiko Buruzagitzan lortutako zirkulazio eta gida lizentziak, fabrikatzaileak luzatutako ezaugarrien ziurtagiria eta derrigorrezko aseguruak. Agiri hauetako bat ez edukitzeak dagokion isunaz gain, ziklomotorea gelditzea edota zigilatzea ekar dezake araudia indarrean jartzen denean. **B**



Ziklomotoreak gidatzeko, baimena eduki beharko da.

## Ordutegi aldaketa Gazte Informazio Zerbitzuan

**Kultur Etxean** dagoen Gazte Informazio zerbitzuak ordutegia aldatu du udan. Eguazten, eguen eta eguakitz goizetan, 9etatik ordubata arte izango da zabalik. Udako ordutegia eguaztenetik, hilak 14, abuztuaren 27ra arte izango da indarrean. Bestalde, abuztu erdiko bi asteetan, 9tik 24ra arte, itxita izango da.

Uda garaian gazte askok eta askok bere ikasketak, momentuz, bukatutzat eman ditu, lan-mundura gerturatzeko ordua iritsi zaielarik. Bergarako Gazte Informazio Zerbitzuan, besteak beste, bai hemen eta bai atzerrian lan edo praktikak egiteko aukeren berri ematen da. Euskal Herriko eta estatuko lanpostuei dagokienez, astebururo prentsan agertutako lan eskaintza guztiak jasotzen eta sailkatzen dituzte.

Horrez gain, Udal mailako lan oposizioen eta lan eskaintza publikoen berri ere ematen dute eta baita lanpostu bat bilatzeko bideak eta lana eskaintzen duten enprezen gida ere. Lanpostua atzerrian topatu nahi izanez gero, modu ezberdinak daude: Eures sarea, lan agentzia pribatuak, Interneteko lan eskaintzak eta Leonardo bekak, besteak beste.

Bergarako Gazte Informazio zerbitzua Kultur Etxeko bigarren solairuan, lehen bideo gela egon zen tokian, dago. Mainer Sedano da bertako arduraduna.

## Herriko botika batzuk itxita izango dira udan

**Herriko botikek** udako ordutegi berria eman dute ezagutzera: Camacho eta Puy itxita izango dira uztailaren 15etik abuztuaren 15era arte; Guallar, bestalde, abuztuaren 2tik irailaren 1era arte; Estella eta Mozos, azkenik, abuztuaren 16tik irailaren 16ra arte. San Martin jaien ostean, ohiko ordutegiari helduko diote berriz ere.

**Bolu**  
liburutegia

Enmarkazioak  
Ispiluak neurrira  
Zurezko artikulua  
Bergarako oleo eta  
lumaxoak

Koldo Elizalde 1, behea  
Tf. 943 76 70 60

**GURIDI** altzariak

Era guztietako  
altzariak

Artekalea 8 Tf. 943 76 31 02

**Gallastegi**

*Jostundegia*

Mahozko lanerako jantziak

San Pedro ☎ 943 76 10 85

**ARDATZA**  
Brikolaketa

Ateak eta zokaloak  
Horma armairuak  
Sarrailak eta manilak  
Koadroen enmarkazioak  
Era guztietako moldurak  
Apalak  
Kajoiak

Masterreka 4 behea  
☎ 943 76 18 93



**GRUPO ZURICH**  
ASEGURUAK



**GABILONDO**  
AGENTZIA  
INMOBILIARIA

**Gurutzne Elkoro Gabilondo** Barrenkalea 44, behea  
Tf./Faxa: 943 76 57 85



# Berrigara

376 zenbakia.  
1999ko uztailaren 16a.

**Errotalde Jauregia. 20570 Bergara**  
**Telefonoa: 943 76 03 97**  
**Faxa: 943 76 29 77**  
**Argitaratzailea: JARDUN Elkarte**

**Zuzendaria:** Eneko Azkarate.  
**Erredakzioa:** Eneko Azkarate, Edu Mendibil, Aitziber Azkondo.  
**Maketazioa:** Iñaki Iturbe.  
**Publizitatea:** Uxue Zabaleta.  
**Harpidetza:** Itziar Kortabarria.  
**Testuen zuzenketak:** Estepan Plazaola, Alex Labaien, Mirari Alberdi, Mariipi Laskurain.  
**Erredakzio kontseilua:** Miguel Angel Elkoroberebizbar, Alex Labaien, Gorka Elortza.  
**Komikiak:** Bittor Rodriguez, Gorka Ortega & Jon Alvarez, Alex Ugalde, Unai Azkarate.  
**Kolaboratzaileak:** Juan Martin Elexpuru, Josu Okina, Luis Mari Agirre, Imanol Sorondo.  
**Banaketa:** Txantxangorri taldea.  
**Inprimategia:** Gertu Koop. Elk. (Zubillaga. Oñati).

Azaleko irudia: A. Saint-Exupéryren "Printze txikia" liburutik egokitua.

Tirada: 5.200 ale.  
Copyright: BERRIGARA.  
Lege gordailua: SS 50/91.  
ISSN: 1130-6599  
BERRIGARA ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.

**Erakunde hauen laguntza:**



Bergarako Udala



Gipuzkoako Foru Aldundia



Eusko Jaurlaritzako Kultura saila

## gutunak.

Ezer adierazi nahi baduzu, ekarri edo bidali iezaguzu zure gutuna. Berrigara astekaria, Errotalde Jauregia z/g 20570 Bergara. Faxez: 943 76 29 77. Identifikatu gabeko mezurik ez da onartuko.

### HIRUGARREN KONTENEDOREA NOIZKO?

Aspaldi irakurri genuen Deba Garaiko Mankomunitateak tetrabrikak eta metal zein plastikozko ontziak batzeko hirugarren kontenedoreak jarri behar zituela Bergaran eta inguruko herrietan. Oker ez banago, martxoan jartzekoak ziren kontenedoreak baina uztailan gaude dagoeneko eta hirugarren kontenedore horren arrastorik ez dago. Nik dakidala, behintzat, Mankomunitateak ez du inolako azalpenik eman eta jakin nahi nuke benetan zer gertatu den hirugarren kontenedorea inondik inora agertu ez dadin.

Goian aipatutako materialek zabor poltsaren bolumenaren zati handia suposatzen dute eta beraz behar-beharrezkoa ikusten dut lehenbailehen kontenedore berria (hori kolorekoa izango zela aurreratu ziguten duela hilabete batzuk) martxan jartzea. Birziklaia gero eta garrantzitsuagoa da gaurko gizartean eta zenbat eta material gehiago berres-

kuratzeko aukera egon, ingurugiroak eskertuko du, dudarik ez. Beraz, lerro hauetatik zera eskatu nahi nieke Mankomunitateko arduradunei: hirugarren kontenedorea gure herrietan jartzeko beharrezko jesticioak egin ditzatela, dagoeneko atzerapen nahikoa izan baitugu kontu honekin. Eta, era berean, herritarrek erantzun ona eman diezaiotela hirugarren kontenedoreari, guztion onerako izango da eta. Zaborra sailkatzeko ohitura bultzatzen badugu, gure atzetik datozenek eskertuko dute.

Azkenik, beste kexatxo bat ere badaukat kontenedoreen inguruan. Behin baino gehiagotan kontenedoreak zaborrez gainezka egoten dira eta beraz, kontenedoreak hustutzea sarriagotan egiteko proposamena luzatu nahi nuke lerro hauetatik.

Nire eskaerak kontuan hartuko dituzuelakoan, jaso ezazue nire agurrik beroena.

Mikel Garcia

### AZKEN ALEA

Esquetan duzun hau, abuztuko oporraldiaren aurreko azken alea duzu. Hurrengoa, irailaren 3an, oporren bueltan jasoko duzu. Ordura arte, ondo ibili!

## tira biraka: gorka ortega & jon alvarez





■ atrebentzia ezpada

## Zer egingo dozu udako oporretan? Honezkeror erabaki dozu nora joango zaren?



**Rene Waterhouse**

Torremolinosa joango naiz abuztuan, eta hilabete osoa bertan emango dut, lagun batzuen etxean. Aurtengoa bosgarren aldia izango da bertara noana.



**Malen Gurrutxaga**

Galiziara joango naiz, Baionara, gurasoekin. Lagunekin joatea nahi baina... Galizian zer egingo doten? Plaiara joan eta deskantsatu, kirolrik ez dot egingo.




**Jonathan Gimbert**

Galiziara, Lugora noa. Familia daukagu Guntin herrian eta lehengusuekin igaroko dot abuztu osoa. Zertxobait ikastea ere tokatuko jat aurren...



**Miren Martinez**

Oraindik erabakitzeke daukagu, baina seguruen kostaldera joango gara lagunak, Mediterraneo aldera, beharbada. Ikusi behar...



**Eduardo Gonzalez**

Ikastea tokatu jat, irailian azterketak izango dittut eta. Datorren astean Badajozera joango naiz astebeterako, baiña abuztuan Bergaran egongo naiz.



**Concha Martinez**

Ez dakit, baina beharbada Pirinioetara joango gara, 15 bat egun pasatzera. Hondartzara gutxitan joaten naiz, ez jatelako batere egustuzten.

■ bai, esan!



Gertaeraren bat salatu edo txalotu nahi izanez gero, deitu 943 76 03 97ra. Identifikatu bariko mezurik ez da onartuko.

### IGERILEKUKO KARNETA ETA DUTXEN KONTUA

**Juan Sanchez**en deia jaso dugu aste honetan BERRIGARAN. Juan Sanchezek proposamen bat luzatu nahi dio Kirol Zerbitzuari: urteko karneta bi epetan ordaintzeko aukera emango baltiz, batez ere udan igerilekuak erabiltzen dituztenei bazkide egiteko aukera emango litzaieke ekainetik aurrera. Orain bazkide egitea nahi izatekotan urteko kuota ordaindu beharra dago eta Juan Sanchezzi gehiegizkoa iruditzen zaio. Udalak 10 bainutako bonoak kaleratu arren, bonoekin ezer gutxi aurrezten dela dio. Eta, azkenik, uda partean gizonetzkoek eta emakumezkoak ur beroko dutxak konpartitu behar izana txapuz bat dela esaten du Sanchezek.

## Begiraleak

### Ikastaroa

- Jardun elkarteak begirale ikastaroa antolatuko du uda ostean.
- Ikastaroan landuko diren gaiak: Pedagogia, talde dinamika, euskal jolasak, haurren jolasak, udalekuak...
- Ikastaroak urritik maitzera iraungo du, zapatuetan goiz eta arratsaldean.

Informazioa:  
943 76 08 19

### Lan poltsa

- Jardun elkarteak datorren ikasturtean astebukaeretan Kartzela Zaharrean begirale lanak egiteko lan poltsa sortu nahi du.
- Baloratuko dena: Begirale titulua izatea, haur eta gaztetxoekin lan egiteko eta euskalgintzan jarduteko interesa eta esperientzia.
- Parte hartzeko, adinez nagusi izatea ezinbestekoa da.





■ asteko menua: **mekolalde jatetxea**

## Mekolalde entsalada tropikala



FLORITA TXINTXURRETA  
Mekolalde jatetxeko sukaldaria

### PRESTAKETA

- Ganbak eta zapoa egosi, hozten laga eta txiki-txiki egin.
- Tuterako kukuluak juliana eran ebaki.
- Saltsa arrosa egin, maionesa, tomate eta whiskyarekin.
- Marisko koktelerako erabiltzen diren kopa berezi banatan arrautza gogor txikitu apur bat ipini.
- Juliana eran ebakitako Tuterako kukuluak ontzi batean ipini eta olio, ozpin eta gatzarekin maneatu. Ondoren, piña zatitxoak gehitu.
- Saltsa arrosa ganbekin eta zapoarekin nahastu eta piñari gehitu.
- Langostinoekin ondo apaindu, eta mahaira ateratzeko gertu!

### OSAGAIAK (4 lagunentzat)

- 4 Tuterako kukulu
- 4 piña natural xerra
- 4 zapo xerra
- 250 gramo ganba fresko zurituak
- Maionesa
- Tomate frijitua
- Whisky zorrotada bat
- Olio
- Ozpina
- Gatza
- 16 langostino egosi
- Arrautza gogor txikitu

■ adituen esanetan

## Kutsadura arriskua animaliekin

ROMAN LAZPIUR, *albaitaria*

Txakurrekin eta katuekin kutsatzeko arriskua izaten da hainbat kasutan. Esate baterako, txakurrak miazkatzen bagaitu edo animaliak erabilitako platerak erabiltzen badugu, txistuaren bitartez, solitariaren familiako tenia bat jasotzeko arriskua daukagu. Ez da komeni izaten txakurrak gure plater berezik jatea eta, beti ere, azalean lesiorik duen (sarna eta onddoak) kontrolatu behar dugu. Azaleko kontaktuaren bidez, txakurrek zein katuek onddoak eta sarna kutsatzen dituzte, nahiz eta guk azalean zauririk ez izan. Eta katuen kakekin, beharbesteko garbitasun neurriak hartzen ez baditugu (eskularruen

erabiltzea, esaterako), toxoplasmosia jasotzeko arriskua daukagu. Haurdun dauden emakumeetan fetuaren malformazioak eragin ditzake.

Txakurren kakekin ere hainbat heste-zizare eta tenia mota jaso daitezke: txakurraren kiste edo kiste hidatidikoa delakoa (kontuz barazki eta fruta gordinak jaterakoan, hobe da barazkiak egosi eta fruta zuritzea) edota askaridoren larbak. Azken hau heste-zizare mota bat da, eta haurrei "larva migrans" konplexua eragiten die. Ondorioz, larba horrek haurraren azala zulatu eta hainbat organutan (begietan, adibidez) lesioak eragin ditzake. **B**

■ bergarako gordailutik

## JENTILAK ELOSUN Imanol Sorondo

**J**erri askok uste izan dute bere aurrekoen artean erraldoi arraza bat izan zela, paisaiak aldatzeko ahalmena eta indarra zeuzkana. Dolmenak ipini, harkaitzak tokiz aldatu eta antzerakoak izango liritekeela erraldoi horien lan batzuk. Grekoen mitologian azaltzen dira tankera horretakoak, eta Biblian bertan ere bai. "Jentil" hitzak, berez, erlijio galetako "paganoa" esan nahiko luke. Jentilak egon ziren aurreko euskaldunen artean, eta hori idaztera goaz. Jentilak Elosun; Bentako Emeteriok kontatu zizkidan hurrengo bi ipuin hauek:

"Artetxe errekoa hemen esan [Elosun], baiña Urola errekoa da... Jentilak egiten ebela banka biak bi mendixetan ipini; bat hemen, Elosun, eta bestia Oletan (beste aldeko mendia)... eta Artetxen (Urolan), errekiaren ura edan egiten ebela. Eta ura edateko kendutako harrixa, harri hori dala Iturriberritik Aizpurutxo aldera dagoena. Klase hortako harririk ez dagoela hemen, eta harek (jentilak) kendutako harrixa dala hori. Harrixari jentil-harrixa esaten jako".



Amezi baserriko inguruetan ere ikusi omen zuten beste jentil bat:

"Amezti gora etorrela jentila, eta andre bat etorren, adar haundixa buruan ebala, urakin. Eta jentilak ura eskau otsan, eta harek eman. Eta andriak esan: Ene!, antoxiña hortxen zan barrun da! Jentilak berriz: Bai, neuk be... xamarren bat ote zeukan... Eta tragau egin ebala antoxiña be". **B**





## Txino jokoaren txapelketa


Eguakitzean **txino jokoaren txapelketa** jokatu zen Canalejas tabernan. Giro ezinhobean, **56 lagun** aritu ziren lehia eta argi geratu zen aspaldi-

ko joko honek oraindik ere jarraitzaile ugari dituela. Intuizioa eta pikardia ezinbestekoak izaten dira txino

jokoan aritzeko eta partaideek maila bikaina erakutsi zuten. **Antonio Menor** izan zen irabazlea (goiko argazkian, ezkerrean), bigarren **Boni** legezpiarra sailkatu zen (argazki berean), hirugarren **Alfonso Dalama** eta laugarren **Juan Marquez** (ezkerreko argazkian, trofeoarekin). Lehen emakumea, berriz, **Nuria Zapata** izan genuen.



**S**enior mailako eskubaloiz taldeko **Xabier Lijo** (argazkian) entrenatzaileak eta **Gorka Larrañaga** delegatuak **Federazioak emandako kiroltasun saria** jaso berri dute. Federazioak bergararrek epaileekin izandako portaera bikaina saritu nahi izan du denboraldiaren bukaeran eta Gorkak eta Xabirrek trofeoa eskuratu dute oroigarri gisa. Lehen territorialeko liga txapelketan laugarren postuan sailkatu da senior taldea baina, kirolean, batzuetan irabaztea ez da inportanteena izaten. Biek ere epaile eta arerioengan errespetua izateak duen garrantzia erakutsi dute. Zorionak!!



## Kiroltasun saria Lijo eta Larrañagarentzat

## Uda Kanpaina arrakastatsua

**Arrakasta handiz** doa aurtengo ekain eta uztailean zehar **Uda Kanpaina**. Hiru txandatan antolatuta, era askotako kirol jarduerak egin ahal izan dituzte gaztetxoek

zein helduek; gehienak haur eta gazteak izan badira ere. Lehen txanda ekainaren 21etik uztailearen 2ra arte izan zen; bigarrena, uztailearen 5ean hasi eta gaur, eguakitzita, arte. Hirugarren eta azkena, astelehenean hasi eta hil bukaera arte izango da. **Igeriketa eta aerobika** dira jende gehien ibili den kirol jarduerak, baina piraguismoan, pilotan, golfean edota tenisean ere dezente ibili da. Astelehenean hasiko den jazz dantzarako ere jende askok eman du izena. Guztira, 500 lagun inguru arituko dira aurten Udal Kirol Zerbitzuak antolatutako Uda Kanpainan.





# Bergararrak oporraldian

## Mediterrania, Andaluzia eta Tunez herritarren jomuga

Oporrak gero eta gertuago daude bergarar askorentzat, eta jendea urtean zehar edo azken momentuan gelaia bidaia agentziak guztiz lanpetuta ditugu egunotan eta, beraiek emandako informazioaren arabera jende gertu de. Estatuan, Mediterraneo eta, atzerrian, Tunez izan daitezke bergararren aurtengo jomuga nagusiak.

**M**editerrania eta Andaluziako kostaldea dira Estatu barruko destinu nagusiak. Galizia ere bergarar askoren topaleku izango da aurtun, agentziek emandako datuen arabera. Maria Eugenia Basterra Ecuador bidaia agentziako langilearen hitzetan, "Estatu barruan geratzen direnak seme-alabak dituzten familiak izaten dira normalean. Honelako destinuak dira azkarren saltzen direnak, jende nagusiak denboraz gertatzen dituelako oporrak". Andaluzia barruan Cadiz izango da bisita gehien jasoko duen toki-tako bat. Hala dio, behintzat, Garbiñe Elortza Barcelo Bidaiak-eko arduradunak; "Cadiz aldera joateko eskaera asko jaso ditugu aurtun; bertako kostaldean herritar asko izango dira. Jendeak eguraldi ona bilatzen du abuztuan, eta Andaluzian eguzkia ziurtaturik dago ia urte osoan. Malagarako ere bidaia dezente saldu ditugu". Aurtengoa Done Jakueren urtea denez, Galizian "erromes" asko bilduko dira. Halcon Bidaiak-eko Gotzon Arzelusek dioskuzenez, "jende gehiena Estatu barruan geratzen da eta, Mediterraneo edo An-

daluziara joango direnez gain, Galiziak ere turismo asko jasoko du aurtengoan. Galiziar gobernuak turismoari zuzendutako publikitateak eragin nabaria du, eta, asko dira, bertako eskaintzaz erakarririk, hara joaten animatzen direnak". Maite Uribeberria Eroski bidaia agentzian ari da lanean. Maiteren hitzetan, "penintsulan Salou eta Andaluzia dira destinu nagusiak eta, irleki dago kienez, Balearrak. Turismo gehiena Estatu barruan geratuko da".

### ATZERRIAN

Atzerrira doazen bergararrak mundu zabalean banatuko dira. Maria Eugenia Basterrak esaten duenez, "gaur egun ez dago destinu nagusi bakarra. Orain urte batzuk jende gehiena Kubara edo Kolonbiara joaten zen. Orain, berriz, denetik dago, eta jendea Europan hasi eta munduko punturik urrutienetara holtzen da. Hala ere, toki bat esatearren, beharbada, Costa Rica izan daiteke besteetatik zertxobait nabarmentzen dena, gure kasuan". Gotzon Arzelusen ustetan, Tunez da aurtengo izarra; "atzerriko destinen artean, Tunezek



### UDARAKO HAINBAT PROPOSAMEN

<b>Mexiko</b> .....	250.000 pezeta
<b>Kuba</b> .....	250.000 pezeta
<b>Brasil</b> .....	350.000 pezeta
<b>Norvegia</b> .....	300.000 pezeta
<b>Thailandia</b> .....	300.000 pezeta
<b>Mallorca</b> .....	150.000 pezeta
<b>Tunez</b> .....	150.000 pezeta
<b>Torremolinos</b> .....	115.000 pezeta
<b>Galizia</b> .....	90.000 pezeta
<b>Benidorm</b> .....	85.000 pezeta
<b>Salou</b> .....	115.000 pezeta
<b>Egipto</b> .....	140.000 pezeta

Oharra: Prezio hauek gutxi gorabeherakoak dira eta, beti ere, 15 eguneko bidaia dira.  
Iturria: Bergarako bidaia agentziak

**Agentzien arabera, Mediterraneo eta Andaluziako kostaldea dira Estatu barruko destinu nagusiak**

## ARREGI

**Eraikuntza materialak**

Biltegia Tellerian, Labegariaetan.  
Tf. 943 76 27 93



## KORTA-ZAR Txokolategia

**Pintxo eta ogibitartekoen espezialitatea**

Barrenkalea 16 ☎ 943 76 20 62

**ileapaindegia**  
eder gela

**—disdira—**

Masterreka 7 • Tf. 943 76 00 66



# bertatzen

## nagusiak

...n gidaiaz goatzeko irrikan dago. Herriko  
...de getuko erdiko bi asteetan egingo du al-  
...K.



hazkunde nabaria izan du. Alde bate-  
tik, kultura aldetik erakargarria delako  
eta, bestetik, hondartza itzelak dituela-  
ko. Betiko destinuen aldean desberdi-  
na da, eta aurten oso ondo ari da sal-  
tzen. Eta gero, ba, betiko bidaiak leu-  
deke: Europan egiteko zirkuituak (Pra-  
ga, Viena eta Budapest eta Italia), Ku-  
ba, Dominikar Errepublika, Hego Ame-  
riketara ere jende asko doa aurten,  
Costa Rica..., eta afrikar karibea deri-  
tzona ere modan dago: Senegalek, bi  
urtetik hona, gero eta turismo gehiago  
jasotzen du". Iritzi bera dauka Garbiñe  
Elortzak; "gure kasuan, Cabo Verde eta  
Senegal izan dira aurtengo "boom"ak.  
Bestalde, Egipto, Kuba, Eskandinavia,  
Kolumbia edo Alemaniara ere jende as-  
ko bidaliko dugu". Eroski bidaiak agen-  
tzian, Tunezekoa izan da bidaiarik sal-  
duena eta jarraian Europa, Hegoameri-  
ka eta Karibea.

### JUGOSLAVIAKO GERRA ETA TURKIA

Jugoslaviako gerrak eragin nabaria izan  
du turismoarengan. Adriatikoak turis-  
mo ugari erakarri izan du azken urte-  
otan, baina aurten ez da horrela izango.

Beraz, bertara bideratzen zen turismoa  
beste norabait zuzendu behar izan dute  
touroperadore nagusiek. Arzelusen  
arabera, "asko igarri da Jugoslavian  
gertatutakoa. Adriatikoak jasotzen zuen  
turismoa beste irla batzuetara desbide-  
ratu da eta Europako touroperadore  
nagusiak asko sartu dira Tenerifen eta  
Mallorcan. Atzerritar mordoa joango da  
bertara. Balearretan eta Kanarietan oso  
nekeza da sasoi honetan abuzturako  
lekua topatzea.

Turkiak ere turismoaren beheraka-  
da jasango du aurten. Ochalan kurdoen  
buruzagiaren kontrako epaiketaren os-  
tean, jendea beldur da Turkian gerta li-  
tezkeen istiluekin, eta oso jende gutxi  
izan da bertara joateko gogoaz aldu  
duena. Garbiñe Elortzak azaldu digu-  
nez, "Turkiarako prezioek behera egin  
arren, ia ez dugu ezer saldu aurten.  
Orain urte batzuk destinurik erakarga-  
rrietakoa zen; orain, berriz, badirudi  
ez dagoela modan. Kurdoen eta turkia-  
rren arteko arazoak direla eta, jendeak  
nahiago izango du toki lasaia batera  
joan. Jugoslaviako gerraren kontua ere  
nabarmen igarri dugu".

### HOTELAK NAGUSI

Herriko bidaiak agentziek hotelekin lan  
egiten dute nagusiki, eta beraz, herrian  
saldutako bidaiak gehienak hoteletara  
joateko dira. Hala ere, Mediterrania  
eta Andaluzia aldean apartamentu asko  
alokatu dira. Kanpinetara joatea nahia-  
go dutenek (gazteak, batez ere) Pirinio-  
ak eta kostaldea aukeratu dituzte  
oporak igarotzeko.

Atzerrirako bidaien kasuan, agen-  
tziek pakete turistikoak saltzen dituzte  
eta prezioan bidaiak, hotela eta traslado-  
ak sartzen dira. Horrelako zirkuituak 15  
egunekoak izaten dira normalean. Ba-  
daude abioian egin beharreko bidaiak  
bakarrik erosi eta gero euren kontura  
ibiltzea gustoko dutenak ere. Kasu hon-  
etan bidaiak luzeagoa egiteko aproba-  
txatzen da. Motxila gainean hartu, nor-  
berak zer ikusi nahi duen aukeratu eta,  
bidaiak liburu on baten laguntzaz, aben-  
tura murgiltzeko ordua izaten da.

Bidaiak agentzien arabera, atzerrira  
joaten direnen artean seme-alabarik ez  
duten gazteak dira nagusi eta Estatu bar-  
ruan, familiak eta bidaiak merkeagoak  
bilatzen dituztenak geratzen dira, batik

**Atzerrira doazen bergararrak mundu zabalean banatuko  
diren arren, Tenez izan daiteke bidaiarik salduena**

## PILI GISASOLA



Osasun eta Dietetikan  
espezializatutako zentrua

Zurradero 2 behea.  
☎ 943 76 58 83

## BILBO garraioak

Bergara-Bilbo eguneroko zerbitzua  
Partikularrendako eta industriendako


Leizariako San Lorentzo 19, 3C  
Tf. 943 76 35 74. Mugikorra: 609 479 443

## SUBIJAI

**Gazteentzako moda**

Irizar 1 ☎ 943 76 42 41





Agentzien arabera, jendeak gero eta denbora gehiagoz gertatzen ditu udako oporrak. Alde egiten duen jendeak nahiago izaten du abuztuaren erdiko bi asteetan oporretara joatea.



bat. Adinekoak, berriz, abuztuan ez dira horrenbeste iriteten, urtean zehar jubilatuak askoz ere prezio hobean bidaiatzeko aukera izaten dute eta.

### ABUZTUAN

Gehiengo nabariak abuztuan alde egiten du Bergaratik. Uztailerako bidaiak gutxi saldu dituzte herriko agentziek. Oraindik ere abuztua da oporretako hila. Maite Uribetxeberriak dioenez, "jende gehiena abuztuan doa oporretara, nahiz eta uztailean gero eta gehiago saldu. Irailerako ere dezente saltzen ari gara jadanik". Maria Eugenia Basterraren ustez, gauzak ez dira gehiegi aldatu azken urteotan, "gaur egun ere abuztua da bidaiatzeko hilik aproposena jendarentzat eta, batez ere, jendeak erdiko bi asteetan, abuztuaren 8tik 22ra bitar-

tean nahiago izaten du alde egitea. Abuztuko lehendabiziko eta azken asteetan jendea egoten da herrian, eta jendeari ez zaio horrenbeste inporta egun horietan Bergaran egotea".

### OPORRAK DENBORAZ GERTATZEN

Jendeak gero eta denbora gehiagoz gertatzen ditu udako oporrak. Gotzon Arzelusen hitzetan, "joan zen urtearekin konparatuz, aurten antzerako mugimendua nabaritu dugu, baina jendea gero eta lehenago hasten da oporrak gertatzen. Gutxi dira azken oferten zain geratzen direnak. Eta gero betiko arazoa dago: jende batek ez du jakiten azken momenturarte noiz hartuko dituen oporrak eta beraz, jende hori azken orduan hasten da oporrak gertatzen". Ma-

ria Eugenia Basterrak esan digunez, "normalean Aste Santuaren ostean hasten da jendea udako oporrekin berotzen; gero baretu egiten da gauza eta maiatz aldera berriz hasten da bidaiarik ikusten".

### ETA BERGARAN GERATZEN DIRENENTZAT?

Bergaran abuztuan geratuko direnentzat herriko udako eskaintza ez da oso erakargarria. Turismo Bulegoa zabalik izan arren, Udalak ez du ezer antolatu. Agorroso inguruko herrietako jaiak izango dira abuztuko aukerak udaberriaren igaroko dutenentzat. Abuztuko azken egunetan, 27tik 29ra bitartean, Kofraixak ospatuko dira Osintxun. Bien bitartean, ondo pasatu! **B**

**Gehiengo nabariak abuztuan alde egingo du herritik. Uztailerako bidaiak gutxi saldu dituzte agentziek**

**JOXAN**  
ARRAINDEGIÀ

Ibargarai 24  
Tf. 943 76 70 29

Paper pintatuak - Pinturak

**A. ZANGITU**

ORDUTEGIA:  
8.00-13.00 eta 15.00-20.00

☎ 943 76 19 54 BERGARA  
IRU: ☎ 943 79 11 71 ARRASATE

**iRUDI**

Erlojudenda  
Bitxitegia

Ibargarai 2  
943 6 51 65

**MIZPILDI**

OKINDEGIA

Matxiategi 1  
943 76 72 73

Mizpildi 8  
943 76 12 32

**AZPEITXI**

*Jatetxea*

Aranerreaka 13 behea ☎ 943 76 55 00



## Minolta Vectis 25

konpaktoa

Argazki karrete bereziduna (APS sistema)

Zoom (30-75 mm) eta flasharekin

Enfoke automatikoa

Autoesposizio programatua

Zipristinek eragiten ez diotena

33.000 pezetan baloratua

# Argazki kamera hau zuendako!



**Adi irakurleok! Oporretan argazkiak atera eta  
KIÑU argazkidendak emandako kamera hau  
zuendako izan daiteke!**

Oporretan ateratzen dituzuen argazkiak argitaratu nahi ditugu Berrigarari. Beraz, aurten, oporretan ateratzen dituzuen argazkiak ekarri edo bidali itzazue BERRIGARAko erredakziora (Errotalde jauregia z/g 20570 Bergara). Politenak edo kuriosoenak opor ostean, irailaren 10ean, argitaratuko ditugu. Mexikora, Noruegara, Australiara, Benidormera, Galiziara edo Gorlara zoaztela ere, argazkiak argitaratzeko modukoak direla uste baduzue, bidali edo ekarri itzazue.

Jasotzen ditugun argazkien egileen artean, Kiñu argazki dendak oparitutako kamara ederra zozketatuko dugu. Anima zaitezte, uda honetan egin ezazue "klik" Berrigara eta Kiñurekin.

**Argazkiak postaz bidaltzen badituzue,  
ipini itzazue TELEFONOA ETA IZENA,  
zuekin harremanetan jartzeko.  
Irailaren 7a, martitzena, izango da azken harrera eguna.**

**KIÑU**  
Berrigara



# B e r g a r a k o

## OSASUN GIDA

- **ALBAITARIAK: ARATZ KLINIKA (LAZPIUR Roman).** Zurradero 6, behe. 943 76 70 67, mobila: 607 48 71 19 • **ETXEBERRIA Julio (Granjako animaliak).** 943 76 43 29, mobila: 608 77 17 32 • **ETXEBERRIA Julio (Deba Garaiko albaiari ofiziala).** 943 76 43 29, mobila: 608 77 17 32
- IRASTORZA BENGOA Sabin (Granjako animaliak).** Iribar baserria, ANTZUOLA. 943 76 63 46 • **NOGUEIRA Humberto (BALDANA klinika).** Koldo Eleizalde 28. 943 76 27 97, mobila: 608 87 68 47 ■ **ANALISI KLINIKOAK: LABORRA Isabel.** Oxirondo 4, 1-B. 943 76 32 06 ■ **BARRIO MEDIKUNTZA: IRIGOYEN Victor.** Oxirondo 4, 1-B. 943 76 32 06 ■ **DENTISTAK: ASTIAZARAN SOLOZABAL.** Iparragirre 1, behe. 943 76 27 99
- BERGARA HAGIN KLINIKA** Bidekurtzeta 6, 2. 943 76 05 77 • **GOROSABEL J. Alberto.** Fraiskozuri 5A, 1-D. 943 76 56 88 • **GIPUZKOAN ESPEZIALITATE ODONTOLOGIKOETARAKO ZENTRUA, E. M. S. Arrieta 3, 2-B.** 943 76 38 54 • **IRIARTE Idoia.** Artekale 1, 1-C. 943 76 01 65 • **IRIZABARTE Juan Mari.** Boni Laskurain 4, behe. 943 76 56 57 ■ **ERREHABILITAZIO FISIKOA: LOPEZ DE MUNAIN Francisco J.** Fraiskozuri 8, 1A. 943 76 71 71
- **FISIOTERAPEUTAK: ARZAK Miren** (Reeducacion Postural Global). Artekalea 1, 1-H. 943 76 43 71 ■ **GINEKOLOGOA: SERRANO DOKTOREA** Ramon Maria Lili 2. 943 76 59 39 ■ **MASAILARIAK: AGIRREZABAL Jose Jabier.** Boni Laskurain 1, 2-A. 943 76 15 74 • **AZPEITIA Irupe.** Agorrosingua 1, 1-C. 943 76 73 43 • **CASANELLAS Jabier.** Boni Laskurain 5, 2-E. 943 76 03 78 • **ETXEBERRIA Ana.** Errekalede 6, behe. ANTZUOLA. 943 76 60 13
- PAYROS Aitziber** Bidekurtzeta 46, behe. 943 76 52 62 ■ **MEDIKUNTZA ESTETIKOA: BENITO Isabel.** Bidekurtzeta 46, behe. 943 76 52 62
- **MEDIKUNTZA OROKORRA: OXIRONDO KONTSULTATEGIA.** Boni Laskurain 2, behe. 943 76 20 50 ■ **PODOLOGOAK: ALTUBE Eduardo.** Simon Arrieta 2. 943 76 07 84 • **AZPIAZU Arantzazu.** Herri Lagunak z/g. 943 76 41 32
- **PSIKIATRA: GALLASTEGI Pablo.** San Martin Plaza 2, 1-ekerra. 943 76 26 64
- **PSIKOLOGOAK: PSIKOPEDAGOGIA ZENTRUA** (Logopedia-foniatría, psikologia, psikomotrizitatea). 943 76 14 80 • **URKAREGI Pakita** (Psikologo klinikoa). 943 76 53 13 • **ZUBILLAGA ZABALA Marisa** (Psikologo klinikoa). 943 76 30 76



Rachael Olabarria, futbolaria

# "Donostia Cup txapelketa ospetsuegia da duen mailarako"

Rachael Olabarria ezaguna dugu areto futbolarri esker. Bergarako Lagunak taldean ez ezik, Gipuzkoa eta Euskadiko areto futbol selekzioetan ere badabil. Oraingoan, Rachaelek Donostiaraino eramán gaitu. Donostia Cup futbol txapelketa ospetsua jokatu da uztailaren 5etik 10era bitartean eta Altzak, kadete eta infantil mailatan dituen taldeetan, aurrelari lanak egin ditu.



Rachael abuztu bukaeran hasiko da entrenatzen.

ARTXIBOA

**G.** Atsedetik hartu ezinda ala?

**E.** Horrela dirudi. Donostian partidu asko jokatu behar izan ditut. Astelehenan hasi eta osteguna arte egunero. Altzako infantil eta kadete mailan izan naiz. Eguakitzean, esaterako, bost partidu neuzkan baina azkenean hiru besterik ez nituen jokatu. Hirugarrena, Bergarako Ipintza txapelketakoa izan zen. Partidu gehiegi egun bakarrerako.

**G.** Nolatan animatu zinen?

**E.** Selekzioko lagun bategen deitu zidan, Altzako taldean jokalariek behar zituztela eta.

**G.** Zela amaitu zenuten txapelketa?

**E.** Kadetetan lehen postuan eta infantiletan bigarren. Kadeteekin bi gol eta infantilekin hamar sartu nituen.

**G.** Telebistan ere ikusi zintugun.

**E.** Horixe esan didate. Azken partiduko penalti

jaurtiketaren irudiak bota omen zituzten. Suediako talde baten kontra jokatu genuen. Une horretan, aurretik jartzea lortu bagenuen ere, berdindu eta azken segunduetan partidua irabazi ziguten.

**G.** Zer suposatu du Donostia Cup jokatzek zuretzat?

**E.** Ondo egon da baina komunikabideetan oihartzun handiegia duela iruditu zait. Ez da hainbesterako. Hori bai, antolaketa eta diru askoko txapelketa da. Diru gehiegi eskatzen duena, beharbada. Suedia eta Inglaterratik talde asko gerturatu dira. Atzerritarrek, jokatzeko oso era ezberdina dute. Baloari zartatekoa ematen diete; guk, ostera, baloi joko hobe erakusten dugu. Dena dela, Bergarako txapelketa nekezagoa dela iruditzen zait. Beharbada, taldeetan jokalaria nagusiagoak daudelako izango da.

**G.** Datorren urterako deialdirik luzatu dizute Donostian?

**E.** Urtean zehar hondartzako txapelketa jokatzeko eskaintza jaso dut, baina ez dut uste animatuko naizenik.

**G.** Areto futboletik, futbolera pasatzeko asmorik?

**E.** Ez. Hasi, futbola jokatzen hasi nintzen, baina une honetan areto futbola dut gogokoago. Bestalde, selekzioan edota maila handiko taldeetan jokatzeko garaian, esaterako, areto futbolk aukera handiagoak eskaintzen ditu. **B**



**Sukaldeak.**  
**Horma armairuak.**  
**Neurrira egindako**  
**altzariak.**  
**Ateak eta leihoak.**  
**Arozlanak.**

BERGARA ☎ 943 76 58 86

*Agirrebeña*

JATETXEA



Ibarra kalea 2 • Tf. 943 76 20 38



# Saskibaloia monitore berriak

**Deba Bailerako** Kirola Euskaraz programaren barruan saskibaloia monitore titulua ateratzeko ikastaroa izan da uztaileko lehen hamabostaldian. Bailerako 18 lagun, 6 bergararrak, aritu dira Labegaraieta kiroldegian, Gipuzkoako Saskibaloia Federazioko teknikarien aginduetara. Eskoletan gaztetxoei klaseak emateko aukera izango dute titulua eskuratzen dutenek.

Bestalde, gimnasia egiteko makinak jarri berri ditu Udal Kirol Zerbitzuak kiroldegian. Udal Kirol Zerbitzuko bazkide direnak eta herriko kirol taldeek erabili ahal izango dute gimnasioa.

Horrez gain, kirol instalazioak erabiltzeko ordutegia zehazteko bilera izango dute datorren eguakitzean Kirol Zerbitzuko arduradunek kirol taldeetakoekin, 18:30etan Udaletxean.



Monitore ikastaroa Labegaraietako kiroldegian eman da.



## Bergararrak hirugarren Herri Arteko txapelketan

**Joan zen zapatuan** Oñatin jokatuak partiduetan Herri Arteko pilota txapelketako hirugarren postua lortu zuen Bergarak. 2-1 irabazi zieten aretxabaletarrei. Emaitzak honako hauek izan ziren: kadeteetan, Aranburu eta Herranek 18-2 irabazi zuten; jubeniletan ere Muguruza eta Redondo bergararrak izan ziren nagusi 22-5 eta senior mailan, Samaniego eta Gutierrezek 17-22 galdu zuten. Hirugarren postu honi esker 200.000 pezetatako saria eskuratu zuten bergarrek.

## Santa Marina Ziklismo saria

**Zapatuan** korrituko da, Lokatza Txirindularien Eskolak eta Santa Marinako jai batzordeak antolatutako Santa Marina VIII. saria. Jubenil mailako txirindulariek, 16:00etan izango dute iteera Matxiategin.

## Hamalau bergarar Saturraran-Deba zeharkaldian

**Igandean** izan zen Saturraran-Deba, Beti Bustik antolatutako zeharkaldia. Guztira, 40 partehartzaile bildu ziren 10:30etan Saturraran hondartzan, Debako bidea hartzeko asmoz. Partehartzaile gehienak gipuzkoarrak baziren ere, Bizkaia, Araba eta Kantabriatik ere gerturatu ziren

batzuk. Bergararrei dago kienez, 14 bildu ziren eta, hauen artean, Imanol Elkorobereziabar izan zen azkarrena, sailkapen orokorrean seigarren. Irabazleak, Javier Ziraiainek, 40 minututan egin zuen ibilbidea; azkenak, ostera, ordubete eta 17 minutu behar izan zituen, 5'6 kilometroak egiteko.



### PISZINETAKO TABERNA

Bokadiloak  
Pintxoak  
Kazuelitak

Boni Laskurain z/g  
Tf. 943 76 53 55

### REMENTERIA

Altzariak

Egongelak / Logelak  
Aukera guztiak / Enkarguan

Artekale 6 Tf.: 943 76 13 29

*Kabutzia*

ARRAINDEGIA

Fraiskozuri 6 Tf. 943 76 56 62

FRONTOI




TABERNA

Fraiskozuri z/g. 943 76 05 09



## I P I N T Z A K O

## futbol txapelketa



## partiduak

## NESKAK

## Finalak

## Eguakitza 16

## Kadeteak

18:45: Baleike-Aldrebesak

## Nagusiak

20:00: Zutaz Pentsatzen-Lai Lai Lai

## MUTILAK

## Final erdiak

## Astelehena 19

19:30: Angiozar-Bildurbarek Opel Lam

## Martitzena 20

19:30: Egueneko irabazleen artean

## Finala

## Eguakitza 23

19:30: Final erdietako irabazleen artean.

## emaitzak

## MUTILAK

Altos Pornos-Angiozar	2-1
Euskal Beccia-Txokokuak	9-1
Arloteak-Angiozar	2-3
Mongatxurak-Bildurbarek Opel Lam	2-3

## NESKAK

Baleike-Las 43	3-0
EKA-Aldrebesak	1-2
Lai Lai Lai-Zutaz Pentsatzen	1-3
Potzu Ta Zapaburuak-Biko	2-1
Onenak-Pentol's Team	7-1
Elgetako Jaixon Berton-Potzu Ta Zapaburuak	0-3
Pentol's Team-Lai Lai Lai	1-4
Biko-Onenak	3-2
Zutaz Pentsatzen-Biko	1-1
Potzu ta Zapaburuak-Lai Lai Lai	2-4

## saldabadago

## NESKEN FINALA GAUR ETA MUTILENA DATORREN ASTEAN

Eguaztenean jokatu ziren neska nagusien final erdietan saltsa be-  
rezia izan genuen. Biko eta Zutaz Pentsatzen taldeen arteko partidua  
ez zen azken minutura arte erabaki. Neurketa bana amaitu zen, eta  
penaltietan Zutaz Pentsatzen nagusitu.

Lai Lai Lai taldeak, berriz, Potzu Ta Zapaburuak taldeari 2-4 iraba-  
zi zion. Beraz, gaurko nagusien finala, Lai Lai Lai eta Zutaz Pentsatzen  
taldeen artean jokatu da. Kadetei dagokienez, finala Baleike eta  
Aldrebesak taldeen artean jokatu da.

Mutilen txapelketan, final erdietako lehen partidua Bildurbarek  
Opel Lam eta Angiozarren artean jokatu da astelehenean.

## jokoz kanpo



Amaia Osa  
EKA

**G.** Maila ona erakutsi duzue txapelketan.  
**E.** Bai. Bigarren egon gara orain arte. Aldrebesak taldearen kontrako partidua irabazi beharra geneukan, baina finala jokatzeke sailkatuko garela uste dut. Finalean galdu egingo dugu seguru asko, baina, berdin dio.

**G.** Txapelketako gazteenetako zara. Zenbat urte daukazu?

**E.** 14.

**G.** Aspalditik futbolean?

**E.** Eskola kirola dela eta, dezente. Era guztietako kirolak egiten ditugu, eta futbola gustoko dugunez, txapelketan parte hartzea pentsatu genuen. 14 lagun gaude taldean. Bestalde, ahal izanez gero, BKEko nesken futbol taldean ere jokatuko nuke.

**G.** Kadete mailako golegile nagusia zara.

**E.** Aurrean jokatzea eta golak sartzea izugarri atsegin dut. Dagoeneko zazpi gol sartu ditut.

**G.** Zer dela eta kamiseta atzean daramazun "Bitxo" ezizena?

**E.** Gaizto samarra naizela diote eta...

**G.** Jokalari bat aipatzekotan?

**E.** Nire taldeko Miren Berraondo, baina beste jokalari on asko ere badaude.

## gora eta behera



## Angiozar eta Bildurbarek

C eta D multzoetan bigarren postuan sailkatu ziren lehen fasean eta Angiozar, gainera, justu samar. Hala ere, final laurdenetan bikain aritu dira, eta Arloteak eta Mongatxurak favoritoak gainditu zituzten martitzenean.



## Arloteak eta Mongatxurak

Lehen fasean partidu guztiak irabazi dituzte, gol mordoa sartuz gainera. Final erdietara sailkatzeke favoritoak ziren, txapelketako talde indartsuenetakoak baitira. Baina, benetako ordua heldu denean, ezin izan dute aurrera egin.

## golegileak

## MUTILAK

1. Igor Larrañaga	Gore	9 gol
2. Bittor Jimenez	A Ze Flaxa	8 gol
3. Asier Rodriguez	Matxakategi	7 gol
4. Juan Luis Etxaniz	Bildurbarek	6 gol
5. Peli Iturrikastillo	Manitou	6 gol

## NESKAK, NAGUSIAK

1. Eva Alzas	Biko	12 gol
2. Rachael Olabarria	Zutaz Pentsatzen	9 gol
3. Naiara Beistegi	Lai Lai Lai	7 gol
4. Itsaso Mendizabal	Lai Lai Lai	7 gol
5. Susana Santorcuato	Zutaz Pentsatzen	5 gol

## NESKAK, KADETEAK

1. Lorea de Castro	Baleike	7 gol
2. Amaia Osa	EKA	7 gol
3. Rebeca Fernandez	Las 43	5 gol
4. Esti Sanchez	Aldrebesak	5 gol





**1. ETXEBIZITZAK**

**SALDU**

Artekalea. 943 76 02 24.

Masterreka. Amueblatua. 941 24 39 02.

Lizarratik 5 km.ra pisua salgai. 943 76 23 12.

Pisua salgai Koldo Eleizalden. 943 76 32 77.

Etxe berriztua Urteagan, 130 m<sup>2</sup>. 943 76 08 79 (19:00etatik aurrera).

Estudioa Salouko Pinedan. 943 79 11 29 (lan ordutegia).

Apartamentua Zubiaurren. 943 76 11 13.

Bidekurutzeta. 250 m<sup>2</sup>ko ganbara. 943 76 21 80.

Zubiaurre. 943 76 49 30.

Pisua salgai Huelvan, garajearekin. 943 76 40 25.

**ERRENTAN EMATEKO**

Pisu amueblatua Martokan, urritik aurrera. Deitu 943 79 20 86 telefonora.

Apartamentua Torreviejan, uztailean. 943 74 24 50.

# Iragarki sailkatuak

Iragarkia DOAN jartzeko, zator Berrigarara edo deitu telefonoz, 943 76 03 97, martitzen eguerdia baino lehen. Berrigarak ez du argitaratzen diren iragarkien ondorioz sor daitezkeen operazioen erantzukizunik.

## Zure iragarkia ia 16.000 lagunek irakurri dezakete!

**1. ETXEBIZITZAK**

Saldu  
Erosi  
Errentan emateko  
Errentan hartzeko  
Etxe konpartituak  
Bestelakoak

**2. GARAJEAK**

Saldu  
Erosi  
Errentan emateko  
Errentan hartzeko  
Bestelakoak

**3. LOKALAK**

Saldu  
Erosi  
Errentan emateko  
Errentan hartzeko  
Bestelakoak

**4. LANA**

Eskaintzak  
Eskaerak  
Bestelakoak

**5. IRAKASKUNTZA**

Eskaintzak  
Eskaerak  
Bestelakoak

**6. IBILGAILUAK**

Saldu  
Erosi  
Bestelakoak

**7. ANIMALIAK**

Saldu  
Erosi  
Bestelakoak

**8. DENETARIK**

Saldu  
Erosi  
Eman  
Hartu  
Trukatu  
Galdu  
Aurkitu  
Bestelakoak

**9. HARREMANAK**

Agurrak  
Kontaktuak  
Deiak  
Bestelakoak

Estudioa Benidormen, hondartza ondoan. 619 522 97.

Fraiskozuri. 943 76 15 40.

Laredon, hondartzatik gertu. 943 76 13 86.

Pisua alokairuan Zarautzen, udan. 943 76 04 58.

Pisu amueblatua Antzuolan. 943 76 21 06.

**ERRENTAN HARTZEKO**

Pisua alokairuan hartuko nuke. 656 71 25 81.

**ETXE KONPARTITUAK**

Datorren ikasturtean Bilbon pisua konpartitzeko lagun bat behar da. 943 76 03 21.

**2. GARAJEAK**

**SALDU**

Garajea salgai Zubiaurren. 943 76 08 89.

Garajea salgai Zubiaurren. 943 76 23 53.

Garajea saldu edo alokatzen da. 943 76 40 03.

Garajea salgai Ibargarain. 943 76 00 93.

Garajea salgai Boni Laskurainen. 943 76 18 85.

Garajea salgai Ibargarain. 943 76 44 25.

Martzial Agirren garaje bikoitza salgai. 943 76 33 88.

**3. LOKALAK**

**SALDU**

Zubiaurren. 100 m<sup>2</sup>. 13,5 milioi. 943 76 11 13.

**ERRENTAN EMATEKO**

Erreformatutako lokal komertziala alokairuan San Pedron. 943 76 57 69.

S. Pedron. 943 76 10 39.

Zubietan 136 m<sup>2</sup>. 943 76 08 18.

Lokala Martokan, prezio onean. 943 76 11 13.

**4. LANA**

**ESKAITZAK**

Etxe lanak edo hau-

rrak zaindu. Esperientzia. 943 76 72 32 (Anel)

Mutila eskaintzen da lanerako. 943 76 04 40.

Neskak, goizez, haurrak zaindu edo etxe lanak. 943 76 46 07.

Pertsona nagusiak zaintzen ditut gauze. 610 01 06 19

Neska batek garbiketa lanak egin edo denda batean lan egingo luke. 943 76 35 38.

Arratsaldean lan egingo nuke. 943 76 52 39.

Neskak goizez haurrak zaindu edo denda lan. 943 76 53 71 (Maite).

Emakumeak etxe lanak edo atariak garbitu. 619 52 98 04.

Mutil gazte batek lan egingo luke udan. 943 76 44 04.

Emakume esperientziadunak denda lan egingo luke. 943 76 07 69.

Neskak umeak zaindu eta etxeak garbitu. Abuztuak 1-15. 943 76 04 57.

Lanak ordenadorez pasatzen ditut. 943 76 10 94 (arratsaldean).

# EDEL TAPIZDENDA

Etixerako artikuluetan aukerarik haundiena eskaintzen dizugu

Alfonbrak, kortinak, kortinoiak, koltzak, edredoak, etab.

Zure bulegoetan giro atsegina behar baduzu, ez ahaztu pertsiana-motarik egokienaren berri eskatzea.

**Bidekurutzeta 14 BERGARA**

# Lan eskaintza

Jardun elkarteak haur eta gazteendako irrati emankizun baterako arduraduna behar du, egun erdiz.

**EGINKIZUNAK:**

Asteroko irrati emankizunaz arduratzea eta herrian irratia eta ahozkotasuna landuko dituzten taldeak bultzatzea.

**BALDINTZAK:**

Bergarako euskara eta euskara batua ahoz zein idatziz ondo menderatzea. Adinez nagusia izatea.

Kurrikulumak aurkezteko azken eguna: uztailaren 28a.

Tokia: Kartzela zaharra  
Informazioa: 943 76 08 19



# Ganbara TABERNA

Heure erara ibiltzeko!

Irala z/g. Tf. 943 76 55 75

# Jose M. Martin

pinturak - paper pintatuak  
sintasola - moketak - gotelea  
pintura industrialia

Errekalde auzoa 5, 1.a ANTZUOLA  
Tf. 943 76 62 02 / 908 77 64 91



Haurrak zaindu edo dendan lan. Uztailean. 943 76 38 90 (Amaia).

Haurrak zaindu uztailean. 943 76 46 32.

## ESKAERAK

Etxeko lanetarako eta ume bat zaintzeko neska euskalduna behar da Antzuolan. 943 76 64 24.

Irailetik aurrera etxean lan egiteko neska euskalduna behar dugu. 943 76 54 24 (gauzez).

## 5. IRAKASKUNTZA

### ESKAINTZAK

Ingeles filologian lizentziatuak klaseak ematen ditu. 943 76 30 28.

OHO eta BBB klaseak. 943 76 33 26.

OHO eta DBH. Abuztuak 16-31. 943 76 25 90.

Ingeles klaseak. Esperientzia. 943 76 51 23.

Ingeles klaseak. 943 76 25 79 (Nuria).

OHO eta DBH klaseak. 943 76 26 27 (Ainhoa).

OHO. 943 76 37 94.

Hezkuntza berezian diplomatuak klaseak uztailean eta irailean. 943 76 31 79.

Mate, fisika eta kimika. Udan. 943 76 59 15.

## ESKAERAK

Fisika, kimika eta biologia. Unibertsitateko 1. mailako klaseak jaso nahi ditut. 629 26 39 45.

## 6. IBILGAILUAK

### SALDU

Renault Clio Williams (SS-AP) eta Suzuki 410 SJ (B-HD). 945 24 11 25

Fiesta 1300 (SS-W) prezio ona. 943 76 63 29.

Honda NSR 80 motorra salgai. 943 76 31 52.

Golf GTI. 943 76 05 96.

Renault 19 TXE 1.7. Aire egokitua. 250.000 pezeta. 943 76 19 56.

Honda CBR 600 F motorra. 630 56 55 06.

Yamaha 600 Diversion motorra. 943 76 08 83.

Karabana plegablea. 943 76 29 29.

Ford Sierra 2.3 diesela (SS-U). 943 76 40 54.

Peugeot 306 TD. Aire egokitua. Deitu 943 76 32 20 telefonora.

Citroen Saxo 1.1i. Bi urte. 943 76 12 66 (Xabi).

## 8. DENETARIK

### SALDU

Kanpineko karro denda salgai. 943 76 64 65.

24 hazbeteko 2 mendi bizikleta. Barra baxukoa eta normalduna. Deitu 943 76 15 76 telefonora.

Minolta argazki kamara, flaxa eta Takumar objetiboa. 943 79 06 15.

Kanpinerako "Igloo" hozkailua. 943 76 41 21.

Bi ohe, idazmahai, altzariak eta apalak. Harritz egurra. 943 76 43 37.

Merida mendi bizikleta, berri-berria. Aluminiozkoa. 943 76 05 88.

Ezkontza erreportajeak egiten ditut. 943 76 13 35.

Erretratuak marrazkiz egiten ditut pastel mar-

goekin. 943 76 44 27.

Mahai autoanplifikatua eta bi bozgorailu salgai, oso egoera onean. 943 76 39 64 (David).

## EROSI

Bigarren eskuko hozgailua erosiko nuke. 943 76 10 60.

2. eskuko botoidun akordeoia. 943 76 10 60.

Paseoko bizikleta erosi-ko nuke. 943 76 52 89.

Singleak eta LPak erosten ditut. 943 52 65 77.

## GALDU

Koloredun kartera galdu nuen aurreko astean S. Pedron. 943 76 26 82.


## BESTELAKOAK

Kotxedun pertsona behar da Bergara-Bilbo egiteko. 943 76 91 10.

## 9. HARREMANAK

### KONTAKTUAK

41 urteko gizon batek emakume bat ezagutu nahi luke. 943 76 40 03.



# Langai

Euskal Lan Zerbitzua

### DELINEATZAILEA

Ibai eskuinaldea. 20927/2

### TORNULARI-FRESATZAILEA

Deba Behea. 21529/2

### MAHAI ZERBITZARIA

Foronda aireportua. 21641/6

### TAILER

ARDURADUNA Bilbo. 21669/4

### ALTZARI MUNTATZAILEA

Bilbo. 21760/5

### BILTEGIZAINA

Arratia-Nerbioi. 21823/5

### ERDIAUTOMATIKAN SOLDATZAILEA

Ibai ezkerrialdea. 21893/4

### DENDARIA

Bilbo. 21923/5

### BILTEGIRAKO ADMINISTRARIA

Bilbo. 21950/7

### LHI MEKANIKARIA

Bilbo. 21962/2

### LHII MEKANIKARIA

Ibai eskuinaldea. 21992/2

### LHII MEKANIKARIA

Bilbo. 21997/4

### FABRIKAZIO ARDURADUNA

Markina-Ondarroa. 22006/2

### SUKALDARI LAGUNTZAILEA

Gernika-Bermeo. 22045/4

### MEKANIKA MANTENIMENDUA

Ibai eskuinaldea. 22159/2

### PEDAGOGI AHOLKULARIAK, 2

Iparralderako. 22268/0

**Lan eskaintza hauetakoren bat interesatzen bazaiztu, erreferentzia hartu eta eskatu informazioa.**

LANGAI Udaletxean: astelehen, eguazten eta eguakitzetan 9:00etatik 13:00era. Telefonoa: 943 77 91 65, Maria Jesus Unamuno.

**Esperientziadun  
SUKALDARI  
LAGUNTZAILEA  
behar da**

943 76 72 00


**Garnish**  
**Bitxitegia**

San Pedro 12 ☎ 943 76 03 57



**LASA**  
**Jatetxea**

OZAETA JAUREGIA  
Tf.: 76 10 55 Faxa: 943 76 20 29



A. Fleming 5  
BERGARA  
Mobilak:  
907 44 50 38  
907 46 57 38

**Kizkur**

Ileapaindegia  
Estetika  
Solariuma



Bolu 51. Bergara. 943 76 50 32



# Jazz gaua eguenean 6 A.M. Band taldearekin

Lehengo Old Boys Quintet taldekoek jazz-a eskainiko dute Irala kalean

**Jardunek uztaileko antolatu dituen kultur gauekin jarraituz, datorren eguenean, uztailak 22, gaueko 10:30etatik aurrera jazz emanaldia izango da Irala kalean, Ganbara eta Kafe tabernen arteko gunean, 6 A.M. Band taldearekin.**

Lehen *Old Boys Quintet* taldean aritutako hiru lagunek eta beste hiru berrik osatzen dute taldea eta jazz-fusion musika egiten dute. Honako hauek osatzen dute *6 A.M. Band*: Asier Elortza (tronpeta), Jesus Alvarez (saxo tenorea), Enrike Txurruka (teklatuak), Ander Garitano (bateria), Oskar Gonzalez (kitarra) eta Nagore Sanz (baxua). Ander, Oskar eta Nagore berriak dira eta Iñigo Alberdik (teklatuak) eta Josu Unamunok (kontrabaxua) taldea laga egin dute. Bestalde, Enrike Txurrukak lehen bateria jotzen zuen eta orain teklatuak jotzen ditu.



Alvarez eta Elortza, 6 A.M. Band taldekoak.

Kide berriak sartzeaz batera, taldeari izena aldatu egin diote, eta estiloa ere aldatu egin dute zertxobait. Oinarritzat jazz musika hartuaz, fussionaren bi-

detik jo dute oraingoan. "Lehen jazz klasikoa egiten genuen; oraingoan, ordea, kitarra eta baxu elektrikoak sartu ditugu, eta jazz-fusiona egiten dugu. Rockak toki nabarmenagoa du orain, nahiz eta musika instrumentala egin eta, jazzean bezala, inprobisazioak garrantzi handia izan. Oinarrian jazz talde bat gara, baina beste estilo batzuei atak zabaldu dizkiegu" esan digu Asier Elortza taldeko tronpetajoleak.

Urtebete bada dagoeneko talde berria osatu zenetik, baina datorren eguenekoa izango da zuzeneko lehen emanaldia *6 A.M. Band* taldearentzat. Jesus Alvarez Britainia Handian izan da, eta orain dela gutxira arte ezin izan dute guztiak elkarrekin entsaiatu. Edozein modutan ere, orain elkartu dira taldeko kide guztiak eta aurtengo udan beste pare bat emanaldi eskaintzeko asmoa dute; agian, Soraluzeko Gaztelupen eta Zarautzen.

## Espioitzari buruzko Euskalerrriaren Adiskideen Elkarteko liburua aurkeztu

**Joan zen eguakitzean** aurkeztu zen Bergarako Udaletxeko Pleno Aretoan "La Bascongada y el Ministerio de Marina. Espionaje, Ciencia y Tecnologia en Bergara (1977-1783)" liburua. Roman Pascual eta Ines Pellon Euskal Herriko Unibertsitateko irakasleek idatzi dute liburua eta Euskalerrriaren Adiskideen Elkarte-

ko Bizkaiko Komisioak argitaratu du. Aurkezpen ekitaldian, liburuaren egileak, Euskalerrriaren Adiskideen Elkarteko kideak eta Koldo Pereira zinegotzia izan ziren. Liburua 2.000 pezetan jarriko da salgai. Garai hartan, itsasoko espioitzak Bergarako Errege Mintegiarekin zuen harremana aztertzen da liburuan.



Liburuaren egileak, argitaratzaileak eta agintariak aurkezpen ekitaldian.

**Arantza  
Erlojutegia**

Barrenkalea 4  
943 76 10 04



**LASAGABASTER**

**ZURE KONFIDANTZAKO DENDA.**

Zerkaosteta 1 eta 2 ARRASATE Tf. 943 79 27 27 / 943 79 13 55





Bergarako Artisten Elkarteko Boluko egoitza gaur, eguakitza, inauguratuko da erakusketa baten bidez.

## Beart-en arte gunea prest da

### Gaur inauguratuko da artisten egoitza berria Bolun

**Gaur, eguakitza, 19:00etan zabalduko da Beart-en arte gunea. Bergarako Artisten Elkarteko eta Udaleko agintariek hartuko dute parte lokalaren inaugurazio ekitaldian. Era berean, Bergaran egiten diren pintura, eskultura eta zeramika lanak izango dira ikusgai.**

Pintura, eskultura eta zeramika lanak egiten dituzten herritar guztiei zabaldu nahi izan zaizkie ateak euren lanak erakutsi ditzaten. Horregatik, ospe handiko izenen alboan, hasi berrien lanak ere izango dira ikusgai. Guztira, 50 bat pintura lan eta 6 bat eskultura jarriko dira.

Antolatzaileek ziurtatu dute Simon Arrieta, Azkargorta eta Juaristiren lanak ikusi ahal izango direla, eta Moises

Egurenenak ere lortu nahi dituzte. Luis Laskurain Beart-eko kideak adierazi digunez, "Arrieta, Azkargorta eta Juaristik beti egin dute herriko pintoreen kolektiboaren alde lan, eta gaur zabalduko dugun egoitza berri honekin eta erakusketarekin, nolabaiteko omenalditxo bat egin nahi diegu".

Erakustaretoa uztailaren 25era arte egongo da zabalik, eta honako ordutegia izango du: egunero, 19:00etatik 21:00ak arte; asteburuetan, 12:00etatik 14:00etara eta 19:00etatik 21:00etara.

Beart hainbat artista plastikok sortutako elkarte da, eta eskualdean era honetako azpiegiturak garatzea du helburu. Boluko lokal berriak 400 metro karratuko azalera erabilgarria du, bost espazio ditu bi alturatan banatuta eta erakusketa areto zabal bat.

#### erreseinak



**P. Arradoy**  
**Kattalinen gogoetak**  
Kontakizun laburrak

P. Arradoy gaitzizenaren azpian, Pierre Narbaitz (1910-1984, Behe Nafarroa) Baionako apezpikutegiko bikario jenerala gordetzen da. "Gure Herria", "Aitzina" eta "Herria" aldizkarietan hainbat artikulua idatzi zituen bere garaian, eta behenafarreraz idatzitako pare bat liburu ere laga zizkigun. Elkarlanean argitaletxeak, *Aturri idazlanak* sail berrian, Arradoy jaunak 1955.ean Baionan argitaratutako liburuaren edizio berria jarri du kalean. "Kattalinen gogoetak" honetan, hainbeste aldatu den euskal baserri mundua, euskararen eta fedearen gordelekua, deskribatzen digu egileak.

- Elkarlanean. 122 orr. 1.600 PTA



**Hemendik at!**  
**Orain**  
Techno-pop

Sintetizadoreak oinarritzat dituen tekno-pop euskal talderik adierazgarriena da Iruñeko Hemendik at!. 80ko hamarkadako eta 90eko hasierako ohiko tekno-poparen haritik, 11 kantu dantzagarri jaso dituzte "Orain" izeneko bigarren CD honetan, tartean aurtengo Nafarroa Oinez-eko "Jaso dezagun euskara" izenekoa. Era honetako musika egiten duten taldeetan ohikoa ez bada ere, sexuari, arrazismoari edota abertzaletasunari buruzko aldarrikapenak darabiltzate kantuetan.

- Gor. 2.450 PTA

# Sugoi

**ERLOJUAK, ARTIKULU  
ELEKTRONIKOAK,  
KALKULADORAK...**

Irizar pasealekua 2 behea  
☎ 943 76 59 54 BERGARA

Irala 3  
Telefona:  
943 76 48 26



**IRRINTZI**  
k a f e t e g i a

# izeder

**ARTE DEKORATIBOKO  
ikastaroak**

943 76 71 05. Arruriaga 2

# KONDE



Burdinate 1  
☎ 943 76 02 57

P  
A  
N  
A  
D  
E  
R  
O  
K  
U  
A



denborapasa / LUMA

1	2	3	4	5	6	7	8	9	10
2									
3									
4									
5									
6									
7									
8									
9									
10									

**Ezker eskuma**

1. Derrigorrezko. 2. Arabako biztanleak. Bat. 3. Euskal Herriko egunkaria. Sona. 4. Norbaiten. Gizon izena. 5. Herri hizkeran, eta. Kontsonante bikoitza. Guraso arra. 6. Agiri-mota. Ugari. 7. Sufrea. Akitu aditzaren infinitiboa. Jaurtike-ta. 8. Maiz. Bibliako pertsonaia. Kontsonante bikoitza. 9. Zein motatako. Bizkaiko ibaia. 10. Arabako herria. Gabarrak.

**Goitik behera**

1. Nagia denaren nolakotasuna. 2. Pluralean, fruitu-mota. Gor. 3. Errioxako herria. Oholtza. 4. Haranak. Interjekzioa. 5. Tantalioa. Erbioa. Pukoa. 6. Azkar. Lehenengoa. Bokal errepikatua. 7. Erdi, hitz elkarketan. Zazpi eguneko epe. Bokala. 8. Zazpigarren hilabetean sortua. Kontsonante errepikatua. 9. Potasioa. Lekukoa. 10. Hegazti-mota. Burdinolak.

**Soluzioa**

10. Oloa. Oiak.  
9. K. Altonha.  
Ert. Aste. A. 8. Zazpiki. LI.  
Ta. Er. Inka. 6. Arin. A. Oo.  
Haro. Taula. 4. Ibarak. Ail.  
Magtasuna. 2. Aranak. Sor.  
Goitik behera  
Mokako. Lea. 10. Araia. Alak.  
S. Akt. Tiro. 8. Usu. Noe. LI.  
Ta. Rr. Aita. 6. Akta. Asko.  
Gara. Izaia. 4. Inoren. Pio.  
Nahitazko. 2. Arabarra. I.  
Ezker eskuma

**bonofotoa**



Miguel Angel Elkoroberezibar

**Zein da kale honen izena eta zein egunetan ospatzen da auzoko festa eguna?**

Jari Bonofotoko eta Galde Debaldeko erantzunak behean eta asmatzen dituzuenon artean afari ederra zozketatuko du BERRIGARAK. Aste honetan irabazten duenak eta berak aukeratutako lagunak **Mekolalde** jatetxean izango dute afaria.



Aurreko aleko saria, **Itsaso Goengarentzat** izan da: Ugarrixa merenderoan bi lagunendako afaria. Zorionak Itsasori! Galderen erantzun zuzenak: Bonofotoa: **Elkone** edo **Elkoroberezibar** Galde Debalde: **1-B, 2-A, 3-C**

**MEKOLALDE**  
Jatetxea

Mekolalde z/g  
Telefonoa: 943 76 50 18

**BONOFOTOA**

**GALDE DEBALDE** 1: \_\_\_\_\_ 2: \_\_\_\_\_ 3: \_\_\_\_\_

Izen-deiturak: \_\_\_\_\_ Telefonoa: \_\_\_\_\_

Ekarri edo bidali txartela **EGUAZTEN EGUERDIRAKO** Berrigarara! AFARI EDERRA IRABAZ DEZAKEZU!



**Udal Musika Bandan saxo altua eta Kobok dultzainero taldian dultzaina jotzen dau Asierrek (26 urte). Lanbide Heziketa ikasketak egin zittuan eta, aitaren ofizioari eutsiz, Lazkano oiñetako dendan dihardu lanian.**

## Asier Lazkano

**Janzteko, zapatak ala zapatilak?**

Zapatilekin gustorago ibiltzen naiz.

**Zapatila onenak, zeintzuk?**

Asics Mizuno izenekoak.

**Udarako zer da gehixen saltzen dozuena?**

Sandaliak eta zapatilak.

**Errezagoa zer: zapatak konpondu ala saldu?**

Saldu igual...

**Zure zapatak zeuk garbitzen dittuzu?**

Bai.

**Lanerako beharrezko ezaugarria?**

Bezeruak zer nahi daben jakitia.

**Mendiko botak sarritan janzten dittuzu?**

Bai, udan gehixen.

**Inguruko mendi bat?**

Gorbea.

**Udan: mendixa ala hondartza?**

Bixak tartekatzia onena.

**Hondartzarik gustokoena?**

Lekeitiokua.

**Zergatik hasi ziñen saxua jotzen?**

Betitik gustatu izan jatelako.

**Etxian be entsaiatzen dozu?**

Bai, eguerdixan normalian.

**Dendan be gustatzen jatzu musika jartzia...**

Sputnik irrati alemana edukitzen dot

jarritta.

**Musika talde bat?**

Hertzainak, El Ultimo eta La Parranda,

orain gutxirarte eurekin jo dot eta.

**Sukaldari ona zara?**

Defenditzen naiz.

**Janari eta edari bat?**

Txuleta on bat eta garagardua.

**Jan ezin dozun plater bat?**

Entsaladia ez jat gustatzen.

**Zer izan nahi ziñuan txikitan?**

Ez daukat goguan...

**Zinean ikusitako azken filmia?**

Aspaldi ez naiz joan, baiña Kixiren "40 ezetz" kortua ikusteko gogua daukat.

**Irakurritako azken liburua?**

Ikastolan be ez neban irakurtzen...

**Loterixan jokatzeko dozu?**

Primitiva egitten dot.

**1.618 milioiko bi sari banatu dira. Zer egingo ziñuke horrenbeste dirurekin?**

Auskalo! Thailandiara joan edo...

**Egon zara San Ferminetan?**

Ez. Behin bakarrik egon naiz, orain dala bost bat urte.

**Entzierruak ikusten dittuzu?**

Bai, egunero gaiñera.

**Uda parteko jairik onenak, zeintzuk?**

San Martzialak.

**Zer egingo dozu oporretan?**

Abuztuan Mediterraneo aldera joango gara seguruen. **B**



**Oihalki metroa 500 pezetan!**

Katabia 1.  
943 76 27 17

**ezpeleta**  
Ostalaritzarako  
ehungintza

Ostalaritza eta egoitzetarako  
mahai-zapi eta industri-ehunak

San Lorentzo 1, Bergara  
Tf. 943 76 28 77/Tf. eta faxa: 943 76 17 09

**AGOITZ**  
Tapizdenda

Leizariako San Lorentzo 25  
BERGARA  
Tf.: 939 84 57 47



**Estella ortopedia**



Javier Estella, ortopedia teknikari tituluduna  
OSAKIDETZAREKIN ETA LAGUN AROREKIN HITZARTUA

**Mastektomietan...**

- Bainujantziak
- Protesiak
- Bularretakoak



**Anita<sup>care</sup>**

Matxiategi 5. Telefonoa: 943 76 19 63

RFS 421/97





## Madura futbol taldea, 1946

Dagoeneko 53 urte igaro dira goiko argazkia atera zenetik. Orduko mutikoak ere futbolearen aritzen ziren ahal zutenean; lagunekin elkartu, zelai egokia topatu eta sasoi hartako kromoetan agertzen ziren futbolarien *driblinak* egiten saiatuko ziren orduan ere. Argazkikoak Madura taldekoak dituzue eta, antza denez, talde bikaina zeukaten, behin baino gehiagotan txapeladun gertatu baitziren herrian antolatzen ziren txapelketetan. Horietako batean, koparik ez zegoenez, pattar botila bat eman zieten ohizko sariaren orde. Gazteak poza ez zuten txeraturiko ziren...

Argazkia, 1946ko igande batean aterata da go, Zapatariko ostean zegoen zelaian. Bertan agertzen direnei oroitzapen piloaren ekarriko diren erretratuak, dudarik ez. Argazkian daudeneko bat, Mikel Ugarte, Brasilen bizi da orain.

Argazkikoan, ezkerretik eskumara:

**Goian:** Patxi Olabarria, Emeterio Elkorobe rezibar, Tomas Mujika, Lorenzo Laskurain eta Iñaki Mujika.

**Makurtuta:** Luis Mari Elkoroiribe, Angel Mujika, Mikel Ugarte eta German Galarza.

*Argazkia: Angel Mujika "Naparra"*

### PROIEKTU BEREZI BATERAKO argazkiak behar ditugu

**Antzinako lanbideen** (errementaritz, burdinola, ehungintza, karegintza, larrugintza...) argazki zahar edo berriak baldin badauzkazu, BERRIGARARA edo JARDUNERA ekartzea eskertuko genizuke. Argazki denak itzuli egingo dizkizugu.

Berrigara: Errotalde jauregia. 943 76 03 97. Jardun: Kartzela zaharra. 943 76 08 19

**MUJIKA**  
Jantzidenda

Barrenkalea 1. Tf: 943 76 29 91



**zumelaga**

JATETXEA

ZERBITZU, KALITATE, KANTITATE ETA  
PREZIOAN PAREKORIK EZ!

San Antonio 5 BERGARA ☎ 943 76 20 21



**MEMESA**

INDUSTRI HORNIDURAK

Tf. 943 71 24 25



# Heriotza aseguruak


**BIDAIETARAKO LAGUNTZA**  
Munduko edozein tokitatik  
egin beharreko garraioak barne

**HERIOTZAK**  
Zerbitzu onenak prezio onenetan

*Baduzu aseguru hau? Ez baduzu, ez estutu,  
zatoz gure bulegoetara.*

 **MAPFRE**

Simon Arrieta plaza 3, Bergara. Tf. 943 76 18 80.



**Udan, pneumatikoen  
eskaintza berezia  
T. Blanco**



**BRIDGESTONE**  
Punta-puntako prestazioak

**Firestone**  
Firestone etorkizuna da

**Dayton**  
PROFESIONALEK GOMENDATUA

**T. Blanco**

Amillaga 22  
**BERGARA**  
Tf. / faxa: 943 76 17 35




# JAKINA


FAGOR altzarien Bergarako banatzaile bakarra



Zure etxeko sukaldea berritu eta altzariak jarri aurretik, zatoz Jakinara.  
**Diseinua, kalitate/prezio** erlazio bikaina eta **saldu osteko zerbitzu** ezin hobea eskaintzen dizugu.



**6** URTEKO  
GARANTIA

**FAGOR** 

**Sukaldeko altzariak**

JAKINA, bainugelak, zeramika eta sukaldeak

San Lorenzo Industri Poligonoa, Amillaga 10, behea. BERGARA.  
Telefona: 943 76 03 30. Faxe: 943 76 02 91.